



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko ekainaren 23a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, zeinaren bitartez 25 milioi euroko kreditu berezi bat ematen, arautzen eta banatzen baita, Nafarroako Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publiko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteez toki entitateei ekarritako beharrei erantzuteko (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskararen Legeko 25. artikuluan eremu mistoko irakaskuntzari buruz xedatutakoa bete dezan eta Mendigorriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (20. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, zeina heldu den ekainaren 21ean egingen baita. Ele-dunen Batzarrak onetsia (21. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—6/2020 Foru Lege-dekretua, ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, zeinaren bitartez 25 milioi euroko kreditu berezi bat ematen, arautzen eta banatzen baita, Nafarroako Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei toki entitateei ekarritako beharrei erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko ekainaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru lege proiektua, zeinaren bitartez 25 milioi euroko kreditu berezi bat ematen, arautzen eta banatzen baita, Nafarroako Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei toki entitateei ekarritako beharrei erantzuteko".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea (10-20/LEY-00010).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru lege proiektua, zeinaren bitartez 25 milioi euroko kreditu berezi bat ematen, arautzen eta banatzen baita, Nafarroako Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei toki entitateei ekarritako beharrei erantzuteko.

ATARIKOA

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19 koronabirusak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikoko arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

Koronabirusaren bilakaerak eragin duen aparteko egoera dela eta, ohiz kanpoko neurri urgente batzuk hartu behar izan dira osasun publikoko arrazoiengatik, besteak beste apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko presako neurriak onesten dituena.

Arau horren 20. artikulua funts berezi bat sortzen du toki entitateek COVID-19arekin lotuta izan dituzten gastuei aurre egiteko.

Arau horrek, zehazki, hau dio:

"1. 25 milioi euroko funtsa sortzen da, zeina, hala badagokio, handitzen ahalko baita, beharren arabera, Nafarroako toki entitateek 2020. urtean

jasan behar dituzten honako hauekin lotutako gastuak arintzeko: gastu fiskalak, osasuna, hezkuntza, politika sozialak, enplegua, familiak, enpresak, ETEak, langile autonomoak, lana eta familia bateragarri egitea, babes soziala, aparteko langileak eta COVID 19ak eragindako bestelako gastuak”.

Bestalde, 2. apartatuan dio Nafarroako Gobernuak zenbateko hori biltzen duen aparteko kreditu berezia emateko foru lege proiektu bat igorri beharko duela Parlamentura, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzeko, eta foru lege horren bidez arautuko direla funts berezi hori eta banaketarako baldintzak.

Era berean, hurrengo apartatuan, hirugarrenean, adierazten du aparteko kreditu hori finantzatzeko dela “Toki Ogasunen Parte-hartzearen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina” izeneko 113002 12100 8700 000003 aurrekontuko partidaren kargura, zenbateko horrekin.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluko lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditu-gehigarri bat ematekoa, bigarrenean. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua eta kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal direla, Parlamentuak zuzenketa direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

Zenbateko hori aplikatuko da kasuko aurrekontu-aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak agintzen duenaren arabera izapidetuz.

Aipatutako 6/2020 Foru Legeak indarra hartu zuenetik (2020ko apirilaren 9an), Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia lanean aritu da COVID19ak Nafarroako Toki Ogasunetan izan dituen ondorioak aztertzen eta ebaluatzen, inkestak eta udal zerbitzuen kostuei buruzko analisiak eginez, eta toki entitateetan nahiz Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuetan datu eguneratuak eskuratzen, horiekin guztiekin proposamen bat taxutzearren,

helburu hauekin: inpaktu ekonomikoa zenbatestea, banaketa formulak ezartzea eta arintze eta sustatze neurriak jartzea, pandemiaren inpaktua apaltzen laguntzeko eta, horrekin batera, tokiko ekonomiak berreraiki eta suspertzeko.

Horretarako, 25 milioi euroko funts bat sortzen da, hiru ataletan banatuta: lehenik, transferentzia arrunten aparteko funts bat, ez-finalista, 10.500.000 eurokoa, COVID-19a Nafarroako udal-erri guztietan eragiten ari den inpaktua apaltzeko xedea duena.

Alarma egoera deklaratzearen ondorioz, udalerrietan gutxitu egin da diru-bilketa, bertan behera gelditu direlako udal jarduerak eta zerbitzuak, osotara edo hein batean, hala nola Otik 3 urtera bitarteko hau eskolak, musika eskolak, kirol zerbitzuak, aparkatzeko gune arautuetako zerbitzuak, eta, aldi berean, gastua handiagoa izan da pandemiak bereziki erasandako zerbitzuetan, adibidez adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan.

Era berean, udal aurrekontuetan isla izan beharko dute tokiko jarduera ekonomikorako funtsezkoak diren sektoreei laguntzeko hartu diren neurriek, adibidez merkataritzari, turismoari eta ostalaritzari, bai eta norberaren familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzen duten ekimenek ere.

Bigarrenik, transferentzia arrunten beste funts berezi bat sortzen da, kasu honetan finalista, COVID-19ak bidaiarien hiri garraio kolektiboaren kudeaketan eragin duen defizit gehigarriari aurre egiteko; funts hau 1.000.000 eurokoa da eta udal-erri onuradunak izanen dira alarma egoera deklaratu zen egunean bidaiarien hiri garraio kolektiboaren zerbitzua banaka nahiz mankomunitate baten bidez ematen zutenak.

Azkenik, kapital transferentzien aparteko funts bat sortzen da tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako; 13.500.000 eurokoa da eta arlo hauetan inbertsioak egiten dituzten Nafarroako udal-erri guztiak izanen dira onuradunak: efizientzia energetikoa, hiri mugikortasun jasangarria, zuzkidurak egokitzea, banda zabaleko konektibitatea eta uraren erabilera efizientea.

Aipatutako hiru funts horien bidez, gure Foru Komunitateko udal-erri guztietan COVID-19a dela-eta gertatzen ari den gastu gehikuntzari eta diru-sarreraren jaitsierari aurre egiteko laguntza erabakigarria bideratzen da, eta, halaber, tokiko ekonomien suspertzea eta dinamizazioa bultzatzen da, bertako bizilagun guztien onerako, hots, Nafarroako Foru Komunitate osoaren onerako.

1. artikulua. Aparteko funts bat sortzea, 25 milioi eurokoa.

1. Aparteko funts bat sortzen da, 25 milioi eurokoa, "Toki Entitateen Parte-hartzearen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina" izeneko 113002 12100 8700 000003 aurrekontuko partidaren kargura, Nafarroako udalerrri guztiei zuzendua.

Funts horrek Toki Ogasunek Nafarroako Tribu-tuetan duten Parte-hartzearen Funtsaren izaera du, eta haren banaketa hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat eginen da.

2. artikulua. Transferentzia arrunten aparteko funtsa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko xedea duena.

1. Transferentzia arrunten aparteko funts bat sortzen da, 10.500.000 eurokoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan izan duen inpaktua apaltzeko xedea duena, "COVID-19 Aparteko funtsa, 2020ko udal aurrekontuen gaineko inpakturako" izeneko 211001 21200 4600 942106 aurrekontuko partidaren kargura, Nafarroako udalerrri guztiei zuzendua.

Foru lege honen I. eranskinean ezarritakoarekin bat, funts honen zenbatekoa, oro har, lerro hauetan antolatuta dago:

- 0-3 urtekoen haur-eskolak: 1.500.000 euro
- Musika eskolak: 200.000 euro.
- Hirugarren adinekoen egoitzak eta adinekoen eguneko zentroak: 500.000 euro.
- Kirol zerbitzuak: 3.100.000 euro.
- Aparkatzeko gunen arautuen zerbitzuak: 600.000 euro.
- Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea: 1.000.000 euro.
- Tokiko jarduera ekonomikoari laguntzea: 1.000.000 euro.
- Bestelako gastuen gehikuntza eta diru-sarreen jaitsiera: 2.600.000 euro.

2. Aparteko funts ez-finalista honen banaketa aldagaien balioekin bat egin da, banaketa formula ponderatu bat baliatuz; horretan oinarrituta lortu da banaketa indizea, hain zuzen ere ezartzen duena zein den udalerrri bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa, foru lege honen I. eranskinean ezarritakoarekin bat.

3. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez ordainduko dira udalerrri onuradun bakoitzak jaso beharreko zenbatekoak, 2020ko Transferen-

tzia Arrunten Funtsaren bigarren ordainketarekin batera, aipatutako I. eranskinean araututakoari jarraikiz.

3. artikulua. Transferentzia arrunten aparteko funtsa, bidaiarien hiri garraio kolektiboaren kudeaketan sortutako defizit gehigarria apaltzeko.

1. Transferentzia arrunten aparteko funts bat sortzen da, 1.000.000 eurokoa, bidaiarien hiri garraio kolektiboaren kudeaketan sortutako defizit gehigarria apaltzeko, "COVID-19 Aparteko funtsa, bidaiarien hiri garraioaren defizit gehigarria" izeneko 211001 21200 4600 942107 aurrekontuko partidaren kargura.

2. Ulertzen da defizit gehigarria hau dela: COVID-19aren ondorioz edo Estatuak, autonomia erkidegoek edo toki administrazioak haren kontra hartutako neurrien ondorioz, Nafarroako udalerriek 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarte izan duten gastu gehikuntzaren eta diru-sarreen jaitsieraren arteko diferentzia, aldi horretan bidaiarien hiri garraio kolektiboaren zerbitzua eman badute banaka nahiz mankomunitate baten bidez.

3. 2020ko irailaren 15a baino lehen, udalerrri interesdunek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusian, aurreko apartatuan aipatzen den defizit gehigarriaren zenbatekoa frogatzen duena, foru lege honen II. eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera.

4. Aparteko funts hau udalerrri onuradun bakoitzak frogatutako defizit gehigarriaren proportzioan banatuko da.

Udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa ordainketa bakarrean pagatuko da 2020ko azaroaren 15a baino lehen, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpen baten bidez.

Zenbatekoak ordaindu ondoren soberakinik baldin badago, Toki Ogasunek Nafarroako Tribu-tuetan duten Parte-hartzearen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinari gehitzeko baliatuko da.

4. artikulua. Kapital transferentzien aparteko funtsa, tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako.

1. Kapital transferentzien aparteko funts bat sortzen da, 13.500.000 eurokoa, tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako, "COVID-19 kapital transferentzien aparteko funtsa, tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako" izeneko 211000-21300-7600-261603 aurrekontuko partidaren kargura, Nafarroako udalerrri guztiei zuzendua.

2. Inbertsio finantzarriak izanen dira Nafarroako Toki Entitateen Aurrekontu Egiturari buruzko 234/2005 Foru Dekretuaren 2. eranskineko VI. kapituluaren aurreikusitakoak, udalerrri bakoitzak erabakitzen dituenak, baina foru lege honen III. eranskineko A letran araututako apartatu hauetako batean edo gehiagotan jasotako xedea izan beharko dute:

- a) Efizientzia energetikoa
- b) Hiri mugikortasun jasagarria
- c) Zuzkidurak egokitzea
- d) Banda zabaleko konektibitatea
- e) Uraren erabilera efizientea

3. Udalerrriak bere mugarteko kontzeju baten edo batzuen mesederako inbertsioak egiten ahalko ditu.

Kontzejuen eskumenei dagozkien gaietarako inbertsioak direnean, kontzejuaren erabakia beharko da udalerrriak jarduketa betetzeko, aplikatzekoa den araudian ezarritakoarekin bat.

4. Inbertsioak egiteko epea 2020ko martxoaren 14tik 2021eko irailaren 30era bitartekoa izanen da.

Gastuak epe horretan fakturaturik eta ordaindurik daudenean joko da betetzat inbertsioa.

5. Udalerrri bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa parametro hauen arabera kalkulatu da:

a) 38 udalerrri bakun, 100 biztanle baino gutxiago dituztenak: 10.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 380.000 euro.

b) 5 udalerrri konposatu, 100 biztanle baino gutxiago dituztenak: 11.072 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 55.360 euro.

c) 81 udalerrri bakun, 100 biztanle edo gehiago eta 500 biztanle baino gutxiago dituztenak: 19.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.539.000 euro.

d) 29 udalerrri konposatu, 100 biztanle edo gehiago eta 500 biztanle baino gutxiago dituztenak: 21.036,80 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 610.067,20 euro.

e) 25 udalerrri bakun, 500 biztanle edo gehiago eta 1.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 40.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.000.000 euro.

f) 11 udalerrri konposatu, 500 biztanle edo gehiago eta 1.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 44.288 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 487.168 euro.

g) 18 udalerrri bakun, 1.000 biztanle edo gehiago eta 2.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 65.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.170.000 euro.

h) 5 udalerrri konposatu, 1.000 biztanle edo gehiago eta 2.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 71.968 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 359.840 euro.

i) 19 udalerrri bakun, 2.000 biztanle edo gehiago eta 3.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 86.528,20 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.644.035,80 euro.

j) 4 udalerrri konposatu, 2.000 biztanle edo gehiago eta 3.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 95.804,02 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 383.216,09 euro.

k) 14 udalerrri bakun, 3.000 biztanle edo gehiago eta 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 110.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.540.000 euro.

l) 2 udalerrri konposatu, 3.000 biztanle edo gehiago eta 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 121.792 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 243.584 euro.

m) 6 udalerrri bakun, 5.000 biztanle edo gehiago eta 10.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 155.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 930.000 euro.

n) 3 udalerrri konposatu, 5.000 biztanle edo gehiago eta 10.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 171.616 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 514.848 euro.

o) 9 udalerrri bakun, 10.000 biztanle edo gehiago eta 50.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 200.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 1.800.000 euro.

p) 2 udalerrri konposatu, 10.000 biztanle edo gehiago eta 50.000 biztanle baino gutxiago dituztenak: 221.440 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 442.880 euro.

q) Udalerrri bakun bat, 50.000 biztanle edo gehiago dituenak: 400.000 euro udalerrri bakoitzak; guztira, 400.000 euro.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Baztango Udala udalerrri konposatutzat hartuko da.

Udalerrri bakoitzeko biztanle kopurua izanen da Estatistikako Institutu Nazionalak 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutako biztanle kopuru ofiziala.

6. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabeteko epean, udalerrri onuradunen zerrenda onetsiko da, jaso beharreko diru-kopuruak ere zehaztuta, eta ordainketa osorik eginen da. Ordainketa hori aurrerakin gisa eginen da.

7. Udalerrri onuradunak eginen duen inbertsioaren edo inbertsioen kostuak, gutxienez, emandako ekarpena baino %15 handiagoa izan behar du (BEZa barne).

BEZ kengarria duten inbertsioen kasuan, gehikuntza hori zerga-oinarriaren gainean kalkulatu da.

Funts honek eta, halakorik bada, erakunde publiko edo pribatuaren bestelako ekarpenek gastu osoa estaltzen ez badute, estali gabeko zatiari aplikatuko zaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

8. Tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsaren ekarpenak bateragarriak izanen dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako bestelako ekarpenekin, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planeko ekarpenekin eta Toki Inbertsioen Planeko libreki erabaki beharreko ekarpenekin (10.000 biztanletik beherako udalerrriak-Despopulazioari aurre egitea), 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legean araututakoaren arabera.

Jasotako ekarpen guztien batura -tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsari dagozkionak, toki entitatearen nahitaezko ekarpena eta entitate publiko edo pribatuaren bestelako ekarpenak- ez da izanen egindako inbertsioaren %100 baino handiagoa.

9. Gastuaren justifikazioa 2021eko irailaren 30a baino lehen egin behar da, foru lege honen III. eranskinen B letran eskatzen den dokumentazioa aurkeztuz.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta ahalmena izanen du ikuskarpeneko bisitak egiteko eta udalerrri onuradunei eskatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

Toki entitateak inbertsioak justifikatzen dituen dokumentazioa aurkeztu eta 6 hilabeteko gehiengo epean, txosten teknikoak emanen dira inbertsioa baliozkotzat jotzeko, xedearekin bat etorritako gero eta baldintza arautzaileak betetzen badira, eta, kasu horretan, espediente amaitutzat emanen da, Kontu-hartzailetza Delegatuak fiskalizazioa egin ondotik.

Ulertuko da justifikazioa egokia dela egindako inbertsioa bat baldin badator III. eranskinen A letran jasotako baldintzekin eta xedea betetzen badu.

10. Ordaindutako zenbatekoak osorik edo zati batean itzultzea eskatuko da, betiere interesdunei 15 egun balioduneko epean entzunaldia eman ez espediente tramitatu ondoren, kasu hauek gertatzen direnean, ez-betetzeak eragiten dituzten arrazoiak baitira:

a) Inbertsioak 2021eko irailaren 30a iragan ondoren justifikatzen bada.

b) Emandako zenbatekoa jarduketa finantzagarrietarako ez beste xede baterako erabiltzen bada.

c) Emandako ekarpenari dagokion inbertsioa edo inbertsioak aipatutako epetik kanpo fakturatu edo ordaintzen bada.

d) Justifikatutako zenbateko osoa udalerriri esleitutakoa baino txikiagoa bada, edo egindako nahitaezko ekarpena artikuluko honen 7. apartatuan aipatzen dena baino txikiagoa bada; kasu horretan, aurreratutako zenbatekoa gutxituko da, eta bien arteko diferentzia itzultzea eskatuko da.

e) Ulertzen bada aurkeztutako dokumentazioak ez duela behar adina justifikatzen ekarpenaren xedea bete izana, artikuluko honen 9. apartatuan adierazitakoarekin bat.

f) Tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsaren kargurako ekarpenaren, toki entitatearen nahitaezko ekarpenaren eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzen batura inbertsioaren kostu osoa baino handiagoa bada. Kasu horretan, berriz kalkulatu da aurreratutako zenbatekoa, kostu horretara doitzeko, eta diferentzia itzultzea eskatuko da.

Edozein kasutan, itzulketa hori konpentsazio bidez eskatuko da, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren transferentzia arrunten atalaren kargura.

Itzulitako zenbatekoak Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan duten Parte-hartzearen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina izanen dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA
TRANSFERENTZIA ARRUNTEN APARTEKO
FUNTSA, COVID-19AK UDAL AURREKONTUE-
TAN IZAN DUEN INPAKTUA APALTZEKO
XEDEA DUENA

1.- Udalerrientzako banaketa formula.

Banaketa indizea lortzen da hamar aldagai adierazleren konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak inpektua azaltzeko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Hauek dira COVID-19ak gehien eragin dien arloak: 0 eta 3 urte arteko haur-eskolak, musika eskolak, kirol zerbitzuak, hirugarren adina, aparkatzeko gune aratuak, lanbizitza eta familia bateragarri egitea, tokiko jardue- ra ekonomikoari eustea eta pandemiaren ondorioz izan diren bestelako gastu handiagoak eta diru- sarrera txikiagoak.

Hauek dira erabili diren aldagaiak: udalerrietako eta kontzejuetako biztanleria, familiek 0-3 urteko zentroetan eginen duten ekarpenaren aurreikuspena, udaleko musika eskoletako matrikulazioa, kirol instalazioak, toki entitatearenak diren adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako tokiak, toki entitatearenak diren adinekoen egoitzetan COVID-19ak kutsatu dituen pertsonen kopurua, toki entitatearenak diren zahar etxeetako eta eguneko zentroetako kudeaketa eredia, aparkatzeko gune arautuetako tokiak eta 15 urte baino gutxiagoko biztanleria.

Horren emaitza formula hau da:

$$\text{FETCPM} = 0,247619 \times \text{POBP} + 0,142857 \times \text{AFEI} + 0,019048 \times \text{MEM} + 0,295238 \times \text{POBD} + 0,047619 \times (0,1 \times \text{TEL} + 0,6 \times \text{PRTEL} + 0,3 \times \text{PCTEL}) + 0,057143 \times \text{AR} + 0,095238 \times \text{PM15} + 0,095238 \times \text{AEL}$$

FETCPM: udalerrri bakoitzaren banaketa indizea da.

POBP: ehuneko bat da, udalerrri bakoitzeko biztanleria ponderatua, zati Nafarroa osorako ponderatu den biztanleria. Udalerrri bakoitzeko biztanleria ponderatua, udalerrri konposatuaren kasuan, kalkulatu da kontzejuetako biztanleria %6,32 gehigarri bat ponderatuz, horixe baita Nafarroako kontzejuetan bizi den biztanleriaren ehuneko, Nastatek 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutakoaren arabera.

AFEI: ehuneko bat da, honela ateratzen dena: familiek toki entitate bakoitzeko 0-3 urteko zentroi 2019-2020 ikasturtean eginen dieten ekarpenaren aurreikuspena, zati familiek Nafarroa osoko 0-3 urteko zentroi 2019-2020 ikasturtean eginen dieten ekarpenaren aurreikuspen osoa. Haur eskolaren titularitatea ez bada udalerrriarena, beste toki entitate mota batena baizik, honela

zenbatzen da: familien ekarpenaren aurreikuspena bider zentroaren titularra den toki entitatean parte hartzen duen udalerrri bakoitzaren parte-hartzearen ehuneko.

MEM: ehuneko bat da, honela ateratzen dena: toki entitate bakoitzeko musika eskolako 2019-2020 ikasturteko matrikulen kopurua, zati Nafarroa osoko musika eskoletako 2019-2020 ikasturteko matrikulen kopuru osoa. Musika eskolaren titularitatea ez bada udalerrriarena, beste toki entitate mota batena baizik, honela zenbatzen da: matrikula kopurua bider musika eskolaren titularra den toki entitatean parte hartzen duen udalerrri bakoitzaren parte-hartzearen ehuneko.

POBD: ehuneko bat da, honela ateratzen dena: udalerrri bakoitzeko kirol-biztanleria ponderatua, zati Nafarroa osoko kirol-biztanleria ponderatua. Kalkulua egiteko, ondoko prozedura honi jarraitzen zaio:

1. Udalerrri bakoitzaren koefiziente biderkatzailea lortzen da:

$$\text{Koefiziente biderkatzailea} = (0,3581 \times \text{PC} + 0,3122 \times \text{PV} + 0,3297 \times \text{P})$$

Bertan:

a. PC: Igerileku estalia baldin badago, haren balioa 1 da. Ez badago, balioa 0 da.

b. PV: Udako igerilekua baldin badago, haren balioa 1 da. Ez badago, balioa 0 da.

c. P: Kiroldegia baldin badago, haren balioa 1 da. Ez badago, balioa 0 da.

2. 25.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrientzat, koefiziente biderkatzaileei koefiziente zuzentzaileak aplikatzen zaizkie, udal eskaintzak tokiko kirol eskaintza osoan daukan pisuaren arabera.

3. Udalerrri bakoitzari dagokion koefiziente biderkatzailea udalerrri horretako biztanle kopuruarekin biderkatzen da. Hortik ateratzen den emaitza udalerrri bakoitzeko kirol-biztanleria ponderatua da.

4. Udalerrri bakoitzeko kirol-biztanleria ponderatua zati Nafarroa osoko kirol-biztanleria ponderatua egiten da.

TEL: ehuneko bat da: toki entitate batena den adinekoen egoitza edo eguneko zentro bakoitzak Nafarroa osoko adinekoen egoitza edo eguneko zentro guzietatik egiten duena. Adinekoen eguneko zentroen kasuan, toki bakoitza ponderatzen da adinekoentzako eguneko zentroa egunean irekirik dagoen orduan ehunekoarekin. Adinekoen egoitza edo adinekoentzako eguneko zentroaren titularitatea ez bada udalerrriarena, beste toki entitate mota batena baizik, honela zenbatzen da: toki kopurua

bider adinekoen egoitzaren edo adinekoentzako eguneko zentroaren titularra den toki entitatearen parte hartzen duen udalerrri bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa.

PRTEL: ehuneko bat da: toki entitate batena den adinekoen egoitza edo adinekoentzako eguneko zentro bakoitzaren toki kopuruak Nafarroa osoko adinekoen egoitzen edo adinekoentzako eguneko zentroen toki kopuru osotik egiten duen ehunekoa. Adinekoentzako eguneko zentroen kasuan, toki bakoitza ponderatzen da adinekoentzako eguneko zentroa egunean irekirik dagoen orduen ehunekoarekin. Adinekoen egoitza edo adinekoentzako eguneko zentroaren titularitatea ez bada udalerrriarena, beste toki entitate mota batena baizik, honela zenbatzen da: toki kopurua bider adinekoen egoitzaren edo adinekoentzako eguneko zentroaren titularra den toki entitatearen parte hartzen duen udalerrri bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa. Kontuan hartuko dira bakarrik COVID-19ak eragin duen osasun krisiaren ondorioz gastu gehikuntza bati edo diru-sarreraren gutxiagotze bati aurre egin beharko diotenak.

PCTEL: ehuneko bat da: toki entitate batena den adinekoen egoitza bakoitzean COVID-19ak kutsatu dituen pertsona kopuruak Nafarroa osoko adinekoen egoitzetan COVID-19ak kutsatu dituen pertsona guztietatik egiten duen ehunekoa. Adinekoen egoitzaren titularitatea ez bada udalerrriarena, beste toki entitate mota batena baizik, honela zenbatzen da: COVID-19ak kutsatu dituen pertsona kopurua bider titularra den toki entitatearen parte hartzen duen udalerrri bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa. Kontuan hartuko dira bakarrik toki entitate batenak diren eta COVID-19ak eragin duen osasun krisiaren ondorioz gastu gehikuntza bati edo diru-sarreraren gutxiagotze bati aurre egin beharko dioten adinekoen egoitzak.

AR: ehuneko bat da, honela ateratzen dena: udalerrriko aparkaleku arautuen kopurua (aparkatzeko gunek arautuak eta parkinak) zati Nafarroa osoko aparkaleku arautuen kopurua.

PM15: ehuneko bat da, honela ateratzen dena: udalerrri bakoitzeko 15 urtez beherako biztanleria ponderatua, zati Nafarroa osoko 15 urtez beherako biztanleria ponderatua. Udalerrri bakoitzaren biztanleria ponderatua ateratzeko, aldagaiaren %26,80 zati berdinetan banatzen da 15 urtez beherako biztanleria daukaten toki entitateen artean, eta gainerako %73,20 hainbanatzen da udalerrri bakoitzak daukan 15 urtez beherako biztanle kopuruaren arabera.

AEL: ehuneko bat da, adierazten duena udalerrri bakoitzak duen tokiko jarduera ekonomikoa zati

Nafarroa osokoa. Horretarako, udalerrri bakoitzaren biztanleria ponderatuaren indizea erabiltzen da. Aldagaiaren %27,20 zati berdinetan banatzen da toki entitateen artean, eta gainerako %72,80 hainbanatzen da udalerrri bakoitzak daukan biztanle kopuruaren arabera.

2.- Aldagaiak eta aplikazio iturriak banaketa formularen

1. Udalerrri bakoitzeko biztanleria: Estatistikako Institutu Nazionalak 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutako biztanleria ofiziala.

2. Kontzeju bakoitzeko biztanleria: Estatistika Institutu Nazionalak 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutako biztanleria ofiziala.

3. Familiek 0-3 urteko haur-eskoletan 2019-2020 ikasturtean eginen duten ekarpenaren aurreikuspena, Hezkuntza Departamentuak emana.

4. Udal musika eskoletako 2019-2020 ikasturteko matrikulazioa, Hezkuntza Departamentuak emana.

5. Kirol instalazioei buruzko datuak honela lortu dira: Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak posta elektronikoen bidez udalerriei egiten dien galdetegia, telefono deiak eta udalen web atarrien kontsulta. 2020ko maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean lortutako datuak.

6. Toki entitate batenak diren adinekoen egoitzetako eta adinekoentzako eguneko zentroetako toki kopuruari buruzko datuak: Eskubide Sozialetak Departamentuak eman ditu 2020ko maiatzaren 21ean.

7. Toki entitate batenak diren adinekoen egoitzetan COVID-19aren eraginez kutsatu diren pertsonen kopurua, Errealitate Sozialaren Behatokiaren txosten honetatik atera da: "COVID-19aren ondorioak Nafarroako adinekoen egoitzetan". 2020ko maiatzaren 15eko datuak.

8. Toki entitatearenak diren adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako kudeaketa ereduari buruzko informazioa: Eskubide Sozialetak Departamentuak emandako informazioa, IDECAL plataformako informazioa, telefono deiak eta mezu elektronikoenak. 2020ko maiatzaren 20tik ekainaren 8ra bitartean lortutako datuak.

9. Aparkatzeko toki arautuak: udalen webguneetan argitaratutako informazioa, eta telefono deiak udaletara zein kontzesioak dituzten enpresetara. 2020ko maiatzaren 25eko datuak.

10. Udalerrri bakoitzeko 15 urtez beherako biztanleria: Estatistikako Institutu Nazionalak 2020ko urtarrilaren 1ean argitaratutako biztanleria ofiziala.

3. -Udalerrien zerrenda, haietako bakoitzak aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuz jaso beharreko zenbatekoak adierazita:

ABAIGAR	2.847,38 €.	BAKAIKU	4.160,31 €.
ABARTZUZA	6.582,52 €.	BARAÑAIN	321.149,46 €.
ABAURREGAINA	2.998,69 €.	BARASOAIN	5.798,29 €.
ABAURREPEA	1.238,18 €.	BARBARIN	2.285,68 €.
ABERIN	4.924,51 €.	BARGOTA	3.965,68 €.
ABLITAS	33.823,04 €.	BARILLAS	3.836,28 €.
ADIOS	2.887,45 €.	BASABURUA	11.818,94 €.
AGUILAR KODES	2.373,58 €.	BAZTAN	204.376,58 €.
OIBAR	10.483,63 €.	BEINTZA-LABAIEN	3.257,65 €.
ALLIN	7.505,66 €.	BEIRE	3.734,33 €.
ALLO	17.751,62 €.	BERASKOAIN	2.672,78 €.
ALTSASU	134.287,81 €.	BERA	57.401,45 €.
AMESKOABARRENA	6.366,27 €.	BERBINTZANA	7.490,26 €.
ANTZIN	4.886,33 €.	BERIAIN	48.213,73 €.
ANDOSILLA	41.817,74 €.	BERRIOBEITI	122.381,16 €.
ANTSOAIN	183.134,70 €.	BERRIOZAR	187.848,34 €.
ANUE	5.146,11 €.	BERTIZARANA	5.986,88 €.
AÑORBE	7.056,73 €.	BETELU	8.602,17 €.
AGOITZ	52.081,21 €.	BIDAURRETA	3.124,10 €.
ARAITZ	5.157,26 €.	BIURRUN-OLKOTZ	3.334,85 €.
ARAKIL	7.912,91 €.	BUÑUEL	49.125,18 €.
ARANARATXE	2.419,22 €.	BURGI	3.767,31 €.
ARANGUREN	224.256,09 €.	BURLATA	305.956,07 €.
ARANO	2.709,96 €.	CABANILLAS	26.849,81 €.
ARANTZA	5.696,86 €.	CABREDO	2.508,81 €.
ARAS	2.884,07 €.	CADREITA	28.019,82 €.
ARBIZU	35.332,67 €.	CAPARROSO	68.397,05 €.
ARTZIBAR	3.602,56 €.	CÁRCAR	13.552,65 €.
ARELLANO	2.890,83 €.	ZARRAKAZTELU	42.239,47 €.
ARESO	3.773,21 €.	CASCANTE	70.819,59 €.
ARGUEDAS	30.742,90 €.	KASEDA	11.762,38 €.
ARIA	2.406,65 €.	CASTEJÓN	84.373,06 €.
ARIBE	2.259,15 €.	GAZTELUBERRI	1.081,14 €.
ARMAÑANTZAS	2.289,06 €.	OLTZA ZENDEA	34.818,82 €.
ARROITZ	13.165,15 €.	CINTRUÉNIGO	198.479,51 €.
ARRUAZU	2.645,73 €.	ZIRAUKI	6.190,99 €.
ARTAXOA	63.488,09 €.	ZIRITZA	2.948,30 €.
ARTAZU	2.954,42 €.	ZIZUR	77.458,06 €.
ATETZ	3.312,63 €.	CORELLA	133.064,01 €.
AURITZ	3.874,88 €.	CORTES	49.623,59 €.
AIEGI	35.333,39 €.	DESOIO	2.632,86 €.
AZAGRA	57.364,95 €.	DEIKAZTELU	8.544,36 €.
AZUELO	1.229,77 €.	DONAMARIA	5.763,71 €.
		DONEZTEBE	30.468,25 €.
		ETXARRI	2.515,56 €.
		EL BUSTO	2.324,55 €.

ELGORRIAGA	3.345,54 €.	ITUREN	5.206,65 €.
ENERITZ	4.376,69 €.	ITURMENDI	4.422,32 €.
ERATSUN	2.846,89 €.	ITZA	18.498,07 €.
ERGOIENA	4.155,34 €.	ITZAGAONDOA	3.030,50 €.
ERROIBAR	8.763,19 €.	ITZALTZU	3.099,60 €.
ESLABA	2.870,04 €.	JAUURIETA	3.746,76 €.
ESPARTZA ZARAITZU	2.848,28 €.	XABIER	2.842,34 €.
ESPRONTZEDA	2.797,87 €.	TXULAPAIN	5.472,75 €.
LIZARRA	223.902,32 €.	LAKUNTZA	14.814,77 €.
ESTERIBAR	49.149,79 €.	LANA	2.960,16 €.
ETAIU	2.300,89 €.	LANTZ	2.966,89 €.
ETXALAR	9.026,42 €.	LAPOBLACIÓN	2.699,42 €.
ETXARRI ARANATZ	26.183,70 €.	LARRAGA	36.735,29 €.
ETXAURI	7.568,14 €.	LARRAGOA	2.557,83 €.
EULATE	5.496,73 €.	LARRAUN	16.726,66 €.
EZKABARTE	18.117,02 €.	ELIZAGORRIA	3.536,05 €.
EZKAROZE	5.911,83 €.	LEATXE	2.158,90 €.
EZKURRA	2.814,77 €.	LEGARDA	2.647,42 €.
EZPOROGI	2.247,60 €.	LEGARIA	2.616,99 €.
FALTZES	21.315,07 €.	LEITZA	50.118,78 €.
FITERO	64.633,67 €.	LEKUNBERRI	43.074,22 €.
FONTELLAS	16.805,78 €.	LEOTZ	3.258,12 €.
FUNES	35.310,42 €.	LERGA	2.299,20 €.
FUSTIÑANA	48.464,85 €.	LERIN	25.575,86 €.
GALAR	28.274,05 €.	LESAKA	59.846,58 €.
GALIPENTZU	2.787,20 €.	LEZAUN	3.949,16 €.
GALOZE	2.871,98 €.	LEDEA	3.710,67 €.
GARAIOA	2.690,85 €.	LIZOAIN-ARRIASGOITI	3.834,06 €.
GARDE	3.653,16 €.	LODOSA	79.049,72 €.
GARINOAIN	15.966,18 €.	LONGIDA	3.826,68 €.
GARRALDA	14.387,27 €.	LOS ARCOS	29.591,96 €.
GENEVILLA	2.382,03 €.	IRUNBERRI	45.837,25 €.
GOIZUETA	6.144,82 €.	LUKIN	3.133,86 €.
GOÑERRI	2.874,58 €.	LUZAIDE	4.631,35 €.
GORZA	2.358,52 €.	MAÑERU	5.717,04 €.
GESALATZ	5.555,38 €.	MARAÑÓN	2.283,99 €.
GIRGILLAO	2.486,44 €.	MARTZILLA	57.713,98 €.
HIRIBERRI AEZKOA	2.786,25 €.	MELIDA	8.048,10 €.
UHARTE	128.317,96 €.	MENDABIA	50.089,68 €.
IBARGOITI	3.553,15 €.	MENDAZA	3.703,02 €.
IGANTZI	7.520,42 €.	MENDIGORRIA	22.320,56 €.
IGUZKITZA	4.780,86 €.	METAUTEN	3.748,91 €.
IMOTZ	5.695,41 €.	MILAGRO	53.776,30 €.
IRAÑETA	3.122,41 €.	MIRAFUENTES	2.356,67 €.
IRURTZUN	28.859,34 €.	MIRANDA-ARGA	47.750,90 €.
IZABA	7.790,21 €.	ELO	6.097,24 €.

MONTEAGUDO	13.692,07 €.	SANTAKARA	11.253,49 €.
MORENTIN	2.782,65 €.	SARTZE	2.534,49 €.
MUES	2.589,69 €.	SARTAGUDA	18.820,87 €.
MURCHANTE	60.513,10 €.	SESMA	16.097,61 €.
MURIETA	5.676,09 €.	SORLADA	2.309,34 €.
MURILLO EL CUENDE	11.315,30 €.	SUNBILLA	7.733,15 €.
MURILLO EL FRUTO	8.815,92 €.	TAFALLA	200.000,58 €.
MURUZABAL	3.330,34 €.	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	7.217,84 €.
NABASKOZE	4.544,08 €.	TIRAPU	2.216,37 €.
NAZAR	2.199,47 €.	TORRALBA DEL RÍO	2.814,24 €.
NOAIN (ELORTZIBAR)	150.691,11 €.	TORRES DEL RÍO	3.015,02 €.
OBANOS	9.937,42 €.	TUTERA	545.115,97 €.
OTSAGABIA	20.294,65 €.	TULEBRAS	2.730,25 €.
OKO	2.464,86 €.	UKAR	4.014,65 €.
ODIETA	4.359,05 €.	UHARTE ARAKIL	12.478,00 €.
OIZ	2.762,36 €.	UXUE	3.064,94 €.
OLAIBAR	4.353,30 €.	ULTZAMA	30.280,58 €.
OLAZTI	18.757,97 €.	UNTZITI	3.739,88 €.
OLEXOA	2.294,13 €.	UNTZUE	3.182,24 €.
ERRIBERRI	48.154,68 €.	URDAZUBI	4.134,95 €.
OLORITZ	3.324,65 €.	URDIAIN	6.021,41 €.
ORBAIZETA	3.606,92 €.	URRAULGOITI	5.085,12 €.
ORBARA	2.259,15 €.	URRAULBEITI	3.953,89 €.
ORISOAIN	2.659,90 €.	URROZ	3.097,06 €.
ORKOIEN	79.500,19 €.	URROTZ-HIRIA	4.337,79 €.
ORONTZE	2.463,21 €.	URZAINKI	3.035,38 €.
OROTZ-BETELU	2.767,44 €.	UTERGA	2.884,07 €.
ORREAGA	2.190,79 €.	UZTARROZEKO U.	3.361,63 €.
OTEITZA	14.703,01 €.	EGUESIBAR	397.159,12 €.
IRUÑA	2.586.930,26 €.	OLLARAN	4.800,98 €.
AZKOIEN	103.760,90 €.	DEIERRI	11.392,51 €.
PETILLA ARAGOI	2.163,97 €.	VALTIERRA	36.651,17 €.
PIEDRAMILLERAKO U.	2.194,40 €.	VIANA	68.436,35 €.
PITILLAS IP	7.114,94 €.	BIDANKOZE	3.072,57 €.
GARES	54.881,45 €.	ALESBES	64.368,98 €.
PUIU	4.966,64 €.	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN	2.677,85 €.
RIBAFORADA	58.526,98 €.	VILLATUERTA	15.252,00 €.
ERROMANTZATUA	3.076,99 €.	ATARRABIA	181.639,62 €.
ERRONKARI	5.206,79 €.	ESA	5.061,79 €.
ZARE	3.383,40 €.	ZABALTZA	3.932,03 €.
SALDIAS	2.753,91 €.	ZIORDIA	4.809,18 €.
JAITZ	2.694,74 €.	ZIZUR NAGUSIA	244.709,80 €.
SAN ADRIÁN	122.915,00 €.	ZUBIETA	3.969,29 €.
SAN MARTIN UNX	6.975,45 €.	ZUGARRAMURDI	3.374,28 €.
ZANGOZA	129.627,07 €.	ZÚÑIGA	2.600,09 €.
SANTSOL	2.571,35 €.		

II. ERANSKINA

ZIURTAGIRI EREDUA TRANSFERENTZIA ARRUNTEN APARTEKO FUNTSA, BIDAIARIEN HIRI GARRAIO KOLEKTIBOAREN KUDEAKETAN SORTUTAKO DEFIZIT GEHIGARRIA APALTZEKO

IZEN-DEITURAK: (HERRIAREN IZENA)ko UDALEKO idazkaria

ZIURTATZEN DUT

– Udal honek bidaiarien hiri garraio kolektiboaren zerbitzua eman duela, banaka edo mankomunitate baten bidez, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarte.

– COVID-19aren ondorioz edo Estatuak, autonomia erkidegoek edo toki administrazioak haren kontra hartutako neurrien ondorioz, udal honek, zerbitzu hori 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarte emateagatik jasan duen defizit gehigarriak _____ euroko zenbatekoa egiten duela.

Eta behar diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, (UDALERRIAREN IZENA)ko alkateak ontzat emanik, URTEAko HILABETEA(a)ren EGUNA(e)an.

IDAZKARIA

O. E. ALKATEA

III. ERANSKINA
KAPITAL TRANSFERENTZIEN APARTEKO
FUNTSA, TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEKO
INBERTSIOETARAKO

A. Inbertsio finantzarriak

Tokiko ekonomia bultzatzeko kapital transferentzien aparteko funtsaren kargurako inbertsio finantzarriak izanen dira, foru lege honen 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, toki entitateen eskumenekoak izan eta atal hauetako batean edo batzuetan sartutako xedeetako bat dutenak:

1. Efizientzia energetikoa

Finantzarriak izanen dira efizientzia energetikorako honako inbertsio hauek, udal edo kontzejuenak diren zuzkidura edo instalazioetan egiten badira:

a) Berokuntzari dagozkion inbertsioak:

– Efizienteak ez diren galdara zaharrenak kentzea eta horien ordez jartzea teknologia erabilgarri onenak dituzten efizientzia handiko ekipo berriak, berokuntzako kontsumoa murriztea ahalbidetzeko.

– Gasolioz edo GLP bidez funtzionatzen duten galdarak kentzea eta horien ordez jartzea gas naturaleko galdara efizienteagoak, kontsumoa eta berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko.

– Erradiadoreetan balbula termostatikoak jartzea, eraikinaren berokuntzako kontsumo energetikoaren kontrola eta optimizazioa handitzeko.

– Berokuntzarako kontrol zentralizatu bat jartzea beharrik gabeko kontsumoak saihesteko, horrek sistemaren funtzionamendua egokitzen baitu ordu tarte eta eraikinaren espazio bakoitzak dituen tenperaturako eskakizun berariazkoetara.

– Banaketa zirkuituetan maiztasun-aldagailuak instalatzea, eskaerari egokitzeko eta kontsumo elektrikoa aurrezteko.

– Berokuntza zirkuitua zonifikatzea 3 bide mekanizatuko balbulak (elektrobalbulak) instalatuz, ur beroaren emaria eremu zehatz batera joatea arautzeko, eremu horretan dauden berariazko beharren arabera.

– Berokuntza sortzeko sistemaren eta banaketa hodian isolamendua jartzea edo hobetzea, energia galerak saihesteko eta, horrela, instalazioak behar duen kontsumo energetikoa murrizteko.

b) Aire-girotzeari dagozkion inbertsioak:

– Errendimendu apalena duten airea girotzeko ekipoak kendu eta, horien ordez, sistema efizienteagoak jartzea, kontsumo energetikoa optimizatzeko eta kontsignako tenperaturara azkarrago iristeko.

– Aire girotzeko instalazioaren produkzio sistemak eta banaketa hodian isolatzea, energia galerak saihesteko eta, horrela, instalazioak behar duen kontsumo energetikoa murrizteko.

– Aireztatzeko eta girotzeko sistemaren erregulazio protokolo bat ezartzea, normalean iragazi besterik egiten ez den kanpoko airea eraikinaren klimatizazioan erabiltzeko.

– Tenperatura kontrolatzeko termostatoak instalatzea, kontsumo energetikoa girotutako espazio bakoitzean dagoen benetako eskaerari egokitzeko.

c) Etxeko Ur Beroari dagozkion inbertsioak:

– Etxeko Ur Beroa sortzeko sistemaren eta banaketa hodian isolamendua jartzea edo hobetzea, ahalik eta energia gutxien galtzeko eta, halaber, ura sortzen den gunetik urrunen dagoen puntura tenperatura egokian iristen laguntzeko.

– Etxeko ur beroa sortzeko sistema zaharrak, errendimendu apalekoak eta oker dimentsionatutako instalazio konbinatuen zati direnak, kentzea eta, horien ordez, gas naturaleko galderaren edo bero-ponparen teknologia duten sistema efizienteagoak jartzea.

d) Barne eta kanpo argiztapenari dagozkion inbertsioak:

– Efizientzia apaleko lanparak eta argiak kentzea eta, horien ordez, LED motako teknologia duten efizientzia handieneko ekipoak jartzea.

– Presentzia detektagailuak eta zelula fotosentikorak instalatzea.

– Tele-etengailuak instalatzea, eraikin bateko argiak aurrez ezarritako orduetan osoki pizteko edo itzaltzeko sistema programatzeko.

– Argiztapen-lerroen sektorizazio bat definitzea eta ezartzea, argiztapenaren erabilera eraikineko espazio ezberdinen behar berariazkoetara egokitzeko, eguneko ordu-tarte ezberdinetan zehar.

– Kanpo argiteria eta argiteria apaingarria automatikoki erregulatzea, horrela bermatzeko hura osoki edo partzialki piztuta mantentzen dela aurrez ezarritako orduetan, eta saihesteko, teknologia desberdinen bidez, kanpo argiteria edo argiteria apaingarria denbora luzez erabiltzea gauez berandu arte, horretarako beharrik egon gabe.

e) Eraikinen inguratzailuari dagozkion inbertsioak:

– Fatxadak eta teilatuak berritzea, berokuntzarako eta airea girotzeko energiaren eskaera murrizteko.

– Beira soila eta itxitura infiltraziodunak dituzten leihoak kentzea eta, horien ordez, beira bikoi-tza eta itxitura eraginkorrak dituzten leihoak jar-tzea, eraikina hobeki isolatzeko eta berokuntzako eta klimatizazioko behar termikoak murrizteko.

– Lorategi bihurtutako teilatuak instalatzea, iso-lamendu termiko handiagoa lortzeko eta, ondo-rioz, berotzeko eta hozteko (neguan eta udan, hurrenez hurren) behar den energiaren eskaera murrizteko.

f) Kudeaketa energetikoari dagozkion inber-tσιοak:

– Hornidura energetikoen kontabilitate eta kudeaketarako web aplikazioak ezartzea.

– Monitorizazio eta telekudeaketako sistemak ezartzea.

– Eraikinaren kudeaketa sistema integral bat instalatzea, honako hauek modu zentralizatuan kontrolatzeko: jarduteko ordutegiak, argiztapen mailak, kontsignako tenperaturak eta makinien egoera.

g) Energia berriztagarria sortzeari dagozkion inbertsioak:

– Elektrizitatea produzitzeko sistemak instala-tzea, eguzki-energia fotovoltaiakoaren bidez, autokontsumorako.

– Eguzki energia termikoa aprobeztatzeko sis-temak instalatzea, Etxeko Ur Berorako eta klimati-zazioan laguntzeko.

– Galdara zaharrak edo efizientziarik gabekoak kendu eta, horien ordez, biomasa galdarak jartzea.

h) Mugikortasun elektrikoari dagozkion jardu-ketak:

– Ibilgailu elektrikoak eta/edo motor elektrikoak lagundutako bizikletak eskuratzea.

– Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura instalatzea.

2. Hiri mugikortasun jasangarria

Atal honetan, diruz lagungarriak izanen dira honako inbertsio hauek:

a) Hiri mugikortasun iraunkorrerako planak idaztea, gutxienez honako epigrafe hauek biltzen dituztenak:

– Oinezkoen eta ziklisten mugikortasunaren egungo egoeraren azterketa.

– Egun dauden azpiegituren diagnostikoa.

– Helburu orokor eta berariazkoak.

– Jarduketarako proposamenak balorazio eko-nomikoa eta guzti.

– Adierazleak

b) Joan-etorriak oinez zein bizikletaz egin dai-tezen bultzatzeko eta oinezkoen eta ziklisten segurtasuna hobetzeko proiektuak idaztea.

c) Bidegorriak egiteko udal planak idaztea.

d) Inbertsioak bide publikoetan, oinezkoen-tzako eta bizikletentzako ibilbideak hobetzeko:

– Bidegorriak egitea.

– Kaleak oinezkoentzako eremu bihurtzeko lanak egitea.

– Inbertsioak irisgarritasuna hobetzeko: ozto-poak kentzea, espaloiak handitzea, mugikortasun murriztua duten pertsonen joan-etorriak errazteko neurriak jartzea, arrapalak egitea eta mugikorta-sun bertikaleko sistemak ezartzea, maldak eta desnibelak gainditzeko.

– Oinezkoen eta ziklisten segurtasuna hobe-tzeko inbertsioak.

3. Zuzkidurak egokitzea

Finantzagarriak izanen dira udal edo kon-tzejuenak diren zuzkidurak eraberritzeko edo handitzeko inbertsioak, baldin erabilera adminis-tratiboa edo hezkuntza, kultura, kirol eta turismo arlokoa badute, bai eta adinekoen egoitzetan, eguneko zentroetan eta mendekotasuna edo des-gaitasuna dutenei arreta ematekoetan egindako inbertsioak ere, apartatu hauetako batean edo gehiagotan jasotakoak badira:

a) Egiturazko segurtasunari dagozkion inber-tsioak (EKT-ES):

– Eraikinaren egitura sendotzea, lortzearren eraikinaren erresistentzia egokia, egonkortasuna eta erabilerarako gaitzea.

b) Suteetarako segurtasuni dagozkion inber-tsioak (EKT-SS):

– Suteak zabaltzeko arriskua murriztea, bai eraikinaren barnealdean bai kanpoaldean

– Eraikina jendez hustea errazten duten balia-bideak izatea

– Ekipo eta instalazio egokiak instalatzea sute-ak detektatu, kontrolatu eta itzali ahal izateko, bai eta eraikinean daudenei alarma transmititzeko ere.

c) Erabileraren segurtasunari eta irisgarritasu-nari dagozkien inbertsioak (EKT-ESI):

– Murriztea erabiltzaileek irristagarritasunagatik erorikoak izateko arriskua, bai eta zuloetan, kos-ketan, eskailera eta arrapaletan erortzeko arriskua ere.

– Murriztea finkoak edo igarotzeko modukoak diren eraikineko elementuen aurkako talka-arriskua edo horietan harrapatua gelditzeko arriskua.

– Murriztea erabiltzaileak ezustean esparruren batean itxita gelditzeko arriskua.

– Murriztea eraikinen zirkulazio guneetan argiztapen desegokiak pertsoneri eragiten ahal dizkien kalteen arriskua, barnealdean zein kanpoaldean, baita larrialdi kasuan edo argiteria arruntak huts egiten duenean ere.

– Murriztea okupazio handiko egoerek eragindako arriskua, erraztasunak emanez pertsonen joan-etorrietarako eta babesteko eta eusteko elementuen bidezko sektorizaziorako, zanpatuta gelditzeko arriskua aurreikusita.

– Murriztea igerilekuetan, biltontzietan, putzuetan eta antzekoetan itotzea eragiten ahal duten erorikoak gertatzeko arriskua, sarbidea mugatzeko elementuak jarritz.

– Murriztea mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskua, zoladura motei eta ibilgailuentzako zein pertsonentzako eremuen seinaleztapenari eta babesari erreparatuz.

– Murriztea oinazturek eragindako elektrokuzio arriskua eta suteak pizteko arriskua, oinazturen aurka babesteko instalazio egokien bidez.

– Erraztea desgaitasuna duten pertsoneri eraikinetan sartzea eta eraikinak diskriminaziorik gabe eta modu independente eta seguruan erabiltzea.

d) Osasungarritasunari dagozkion inbertsioak (EKT-HS):

– Eraikinen barnean eta itxituretan modu desegokian agertzen ahal den ura edo hezetasunaren aurkako babesa.

– Barneko airearen kalitatea aireztatzearen bidez hobetzera bideratutako instalazioak.

e) Nahitaez bete beharreko beste edozein araudia betetzeko inbertsioak.

f) Behar diren inbertsioak COVID-19aren krisiak eragindako eskakizunak betetzearen ondoriozko neurriak hartzeko.

4. Banda zabaleko konektibitatea

Atal honetan, diruz lagungarriak izanen dira honako inbertsio hauek:

a) Konektibitatea hobetzeko inbertsioak, belaualdi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboak egiteko direnak, honako hauek jartzea barne: kondukzioak edo kanalizazioak, kutxatilak, hodiak, telekomunikaziotarako hornitutako etxolak eta dorreak.

b) Beste elementu fisiko osagarri batzuk, aurrekoak egokitzeko beharrezkoak direnak.

5. Uraren erabilera efizientea

Atal honetan, diruz lagungarriak izanen dira honako inbertsio hauek:

a) Drainatze jasangarriko hiri sistemak ezartzea, helburu hauek izanen dituztenak: eremu urbanizatuetatik datozen jariatzeen eta puntako emarien bolumenak murriztea eremu iragazgaitzak gutxituz, hiriko jariatzeak jasotzen dituzten uren kalitatea babestea, eta/edo hondakin-uren araztegi-tako jariatzeen eta puntako emarien bolumenak murriztea.

b) Ur kontsumoa murrizteko inbertsioak udalaren edo kontzejuaren instalazioetan:

– Kontagailu berriak instalatzea eta lehendik daudenak handitzea.

– Eraikinetako edo eremu publikoak ureztatze saretako iturgintza sareak berritzea, efizienteak ez badira edo galera handiak eragiten badituzte.

– Komunak aldatzea, hustuketa bikoitzeko sistemetakoa komunak jartzeko.

– Txorrotak aldatzea, kontsumo txikiko txorrotaren tenporizadoreduak jartzeko, zurrusta-hausleekin eta blokeoaren kontrako sistemekin.

– Dutzak aldatzea, sakagailu tenporizadoreduak dituzten dutzak jartzeko.

– Pixalekuak aldatzea, pixaleku lehorrak edo urik gabekoak jartzeko.

– Presioa murrizteko balbulak jartzea instalazioetan.

– Berdeguneak ureztatze, kaleak urarekin garbitzeko edo antzekoetarako erabiltzen diren hartzeko eta hornitzeko azpiegiturak.

c) Ur kontsumoari buruzko ingurumen-ikuskaritza egitea udal instalazioetan. Honako fase hauek izanen dituzte:

– Helburuak zehaztu eta lan plana prestatu.

– Informazioa bildu: uraren erabilerak, instalazioaren barneko eta kanpoko inbentarioa, proiektuak eta eraberritzeak, ur kontsumoak, fakturak, katastroko informazioa, mantentze-lanetako parteak, argazkiak, araudia, ordezkoko baliabideak, instalaziotarako sarbidea, uraren analisiak, ihesak, presioak eta abar.

– Instalazioaren deskribapena eta hasierako informazioaren laburpena.

– Diagnostikoa: araudia betetzen ote den, kontsumoak aztertzea vs. antzeko tipologia, ihesak

izatea, presioa aztertzea, uraren kalitatea aztertzea; eskaera aztertzea, instalazioaren efizientzia aztertzea, mantentze-lanak aztertzea, etxeko ur beroaren, klimatizaziorako eta arazketarako sistemak aztertzea.

– Ordezko aukerak zehaztu eta aztertzea: egiturazko neurriak, kudeaketa/mantentze-lanetako neurriak, ohituretako neurriak eta araudiari buruzko neurriak.

– Ekintza plana: hobetzeko proposamenak hautatzea; inbertsioak eta aurrezkiak zenbatestea; amortizazioa kalkulatzeko; ezartzeko baldintzak aztertzea; aplikazioaren lehenespena eta planifikazioa.

– Ebaluazio eta jarraipen sistema, instalazioetako kudeatzaile/titularrei ekintza plana betetzeko aukera ematen diena eta emaitzak egiaztatzeko aukera ematen diena.

– Ondorioak eta gomendioak

B. Egindako inbertsioak justifikatzeko dokumentazioa

Gastua justifikatzeko, egindako inbertsio bakoitzagatik dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Idazkaritzako titularraren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan honakoak jaso beharko dira:

a) Jasotako ekarpena erabili dela foru lege honen III. eranskinaren B letran jasotako inbertsioetako bat finantzatzeko.

b) Egindako inbertsioa kontabilizatuta dagoela Nafarroako Toki Entitateen Aurrekontu Egiturari buruzko 234/2015 Foru Dekretuaren 2. eranskinen VI. kapituluaren.

c) Emandako ekarpenari dagokion inbertsioa 2020ko martxoaren 14tik 2021eko irailaren 30era bitarte egin dela.

d) Inbertsioa Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera egin dela.

e) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako bestelako laguntzarik jaso den.

f) Kontzejuen mesederako egindako inbertsioen kasuan, kontzejuen eskumenei dagozkien gaietarako inbertsioak direnean, kontzejuen erabakia dagoela udalerririk jarraitzea egiteko, aplikatzea den araudian ezarritakoarekin bat.

Idazkaritzako titularraren ziurtagiria IV. eranskinen ereduaren arabera eginen da.

2. Inbertsio diruz lagungarri bakoitzagatik ordaindutako gastu guztien fakturen zerrenda zenbakitu eta zehatza, honakoak adierazita:

- a) Ordainketaren kontabilitate agiriaren zenbakia
- b) Gastuaren kontabilizazio agiriaren zenbakia
- c) Ordainketaren data
- d) Kontratutako enpresaren/pertsonaren izena
- e) Kontratutako enpresaren/pertsonaren IFZ
- f) Gastuaren kontzeptua
- g) Fakturaren zenbakia eta data
- h) Oinarrizko zenbatekoa, BEZa, eta guztizko zenbatekoa.
 - i) Fakturaren PFEZaren atxikipena (bidezkoa bada) Foru Ogasunean sartu izanaren egiaztatzea.
 - j) Adierazi BEZa kengarria den edo ez.

Fakturen zerrenda zenbakitu eta zehatza kalkulatu orri batean aurkeztuko da, V. eranskinen ereduaren arabera.

3. Egindako inbertsio bakoitzaren destinoa justifikatzeko txostena, adierazten duena inbertsioa bat datorela eranskin honetako A atalean ageri den inbertsio finantzagarrien zerrendako helburuekin. Txostenari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

- a) Hornidurei dagozkien inbertsioetarako:
 - Faktura zehaztuak.
 - Hornidura bakoitzaren azalpen zehatza.
 - b) 30.000 eurotik beherako inbertsioetarako edo laguntza teknikoak behar ez duten inbertsioetarako:
 - Obra ziurtagiria, jatorrizkoa, neurketa zehatzak edo faktura zehatuak adierazten dituenak.
 - c) 30.000 eurotik aurrerako inbertsioetarako eta laguntza teknikoak behar duten inbertsioetarako:
 - Obra ziurtagiria, jatorrizkoa, neurketa zehatzak adierazten dituenak.
 - Obraren planoak: hasierako egoerakoak eta berritu ondokoak.
 - d) Planen eta proiektuen erredakzio-zerbitzuetako inbertsioetarako:
 - Erredaktatutako plana, proiektua edo ingurumen-ikuskaritza.
 - Faktura zehaztuak.
4. Egindako inbertsioei buruzko argazki-dokumentazioa, salbu eta erredaktatutako planei, proiektuei eta ingurumen ikuskaritzari dagozkien inbertsioetakoak.

IV. ERANSKINA
ZIURTAGIRI EREDUA KAPITAL TRANSFERENTZIEN APARTEKO FUNTSA,
TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEKO INBERTSIOETARAKO

IZEN-DEITURAK: (HERRIAREN IZENA)ko UDALEKO idazkaria.

EGINDAKO INBERTSIOA izeneko inbertsioaren gastuaren justifikazioari dagokionez, zeina UDALERRIAREN IZENAKo Udalaren tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsaren kargura egin baita,

ZIURTATZEN DUT:

– Jasotako ekarpena erabili dela EGINDAKO INBERTSIOA izeneko inbertsioa finantzatzeko.

– Egindako inbertsioa kontabilizatuta dagoela Nafarroako Toki Entitateen Aurrekontu Egiturari buruzko 234/2015 Foru Dekretuaren 2. eranskineko VI. kapituluan.

– Inbertsioa, _____ euroko zenbatekoa duena, 2020ko martxoaren 14tik 2021eko irailaren 30era bitarte egin dela.

– Inbertsioa Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera egin dela.

EGINDAKO INBERTSIOA izeneko inbertsioa finantzatzeko, ez dela jaso beste erakunde publiko edo pribatu batzuen ekarpen ekonomikorik.

EGINDAKO INBERTSIOA izeneko inbertsioa finantzatzeko, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen ekarpen ekonomikoak jaso direla, _____ eurokoa.

(Markatu dagokion laukitxo)

– Aztertu ondoren nire ardurapean ditudan datuak, EGINDAKO INBERTSIOA izeneko inbertsioa, zeina tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsioetarako kapital transferentzien aparteko funtsaren kargura egin baita, ordaintzeko egin diren gastuei buruzko dokumentazioa, V. eranskinean jasotzen direnak dira

– (HALA BEHAR DENEAN) inbertsioa UDALERRIAREN IZENAKo Udalak egin duela KONTZEJUAREN IZENAKo kontzejuaren mesedetan, eta, kontzejuen eskumeneko gai bat denez, udalak egin duela jarduketa hori kontzejuak hala erabakita, aplikatzekoa den araudian ezarritakoarekin bat.

Eta behar diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, (UDALERRIA)ko alkateak ontzat emanik, URTEAKo HILABETEA(a)ren EGUNA(e)an.

IDAZKARIA

O. E. ALKATEA

V. ERANSKINA

KAPITAL TRANSFERENTZIEN APARTEKO FUNTSA, TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEKO INBERTSIOETARAKO
EGINDAKO INBERTSIOA IZENENKO INBERTSIOARI DAGOZKION GASTU ORDAINDUEN FAKTURA ZENBAKITUEN ZERRENDA ZEHAZTUA
(2021eko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharrekoa, egun hori barne)

Eranskin honetan ageri diren datuak 2020ko martxoaren 14tik 2021eko irailaren 30era bitarteko epeari buruzkoak izanen dira, bi egun horiek barne

GASTUEN KONTABILITATE-DOKUMENTUA	ORDAINKETAREN KONTABILITATE-DOKUMENTUA	ORDAINKETAREN DATA	ENPRESA/KONTABILITATE PERTSONAREN IZENA	ENPRESA/KONTABILITATE PERTSONA	KONTZERPTUA	Fakturaren zk.	Fakturaren DATA	ORDAINKETA ZERRENDA	BEZA	ZENBAKETA GUZTIA	BEZAREN KONTABILITATE-DOKUMENTUA	BEZ KONTABILITATE-DOKUMENTUA (BEA/BEZ)

GUZTIRA GUZTIRA

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskararen Legeko 25. artikuluan eremu mistoko irakaskuntzari buruz xedatutakoa bete dezan eta Mendigorriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Euskararen Legeko 25. artikuluan eremu mistoko irakaskuntzari buruz xedatutakoa bete dezan eta Mendigorriko ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat ireki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregulamentuan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, ekainaren 24ko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Urtea hasi zenetik, zenbait familia eskatzen ari dira D ereduko lerro bat ireki dadin Mendigorriko Julián M^a Espinal Olcoz Ikastetxe Publikoan, sei ume baitaude 2020-2021 ikasturtean euskaraz matrikulatzeko prest, eta beste bost heldu den

ikasturtean. Beraz, bi urtean hamaika umeko unitate bat egonen litzateke.

Familia horiek Parlamentuan azaldu zuten, Hezkuntza Departamentuarekin izandako lehen-dabiziko hartu-emanetan, Eleaniztasunaren Atalak begi onez ikusi zuen D ereduko lerro bat irekitzeko proposamena, eta aukera hori irekita egon zitekeela adierazi zien. Halere, aurrematrikula egiteko kanpaina hasi baino apur bat lehenago, Mendigorrian D eredua hautatzeko aukera desagertu zen webgunetik. Izan ere, zenbait zuzemen egin arren, familia horiei ez zaie hartu eta ontzat jo beren seme-alabak Mendigorrian D ereduan aurrematrikulatzea; hortaz, ofizialki ez da jasota ageri eredu horretarako eskari errealik dagoenik.

Hezkuntza Departamentuak ez baldin badu eskari hori aintzat hartzen, Mendigorrian D ereduan ikasi nahi duten ikasleek Garesera joan beharko dute, edo Mendigorrian matrikulatu, nahi ez duten eredu batean.

Hezkuntzako kontseilariak, D ereduko lerro bat irekitzeari uko egitearen arrazoia azaltzean, 41/2016 Foru Agindua aipatu du zenbaitetan, non oro har ezartzen baita zortzi ikasle behar direla D ereduko lerro bat irekitzeko. Baina foru agindu horrek, izatez, eremu ez euskalduna baino ez du aipatzen, eta Mendigorria eremu mistoan dago 2017tik aitzina, urte horretan aldatu baitzen Euskararen Foru Legea. Hortaz, Mendigorriari aplikatu beharreko irizpideak Euskararen Foru Legearen 25. artikuluan ezarritakoak lirateke. Hauxe, hain zuzen ere:

“25. artikulua. Irakaskuntza eremu mistoan

1. Euskara irakaskuntzan sartzeari mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunez egi-

nen da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskaraz irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten”.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eremu mistoko irakaskuntza

dela-eta Euskararen Foru Legearen 25. artikuluan ezarritakoa bete dezan eta 2020-2021 ikasturtean D ereduko lerro bat ireki dezan Mendigorriko Julián M^º Espinal Olcoz Ikastetxe Publikoan, familien eskaria eta landa-eremuko eskola publikoari eman behar zaion bultzada sendoa aintzat hartuta.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Foru parlamentariak: María Solana Arana eta Ainhoa Aznarez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, zeina heldu den ekainaren 21ean egingen baita.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten baitu Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta ekainaren 21ean urdinez argiztatuko du bere egoitzaren fatxada.

2. Ostiral honetan –ekainak 21–, 12:00etan, ANELAren manifestua irakurtzeko ekitaldi bat egingen du Parlamentuaren atalondoan (10-20/DEC-00045).

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

6/2020 Foru Lege-dekretua, ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 6/2020 Foru Lege-dekretua, ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2020ko ekainaren 23ko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2020ko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran eginen direla aipatu foru lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. (10-20/DLF-00006).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2020ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

6/2020 Foru Lege-dekretua, ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu da COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Hurrenez hurreneko luzapenak egin eta gero, alarma

egoeraren indarraldia 2020ko ekainaren 21eko 00:00ak artekoa dela ezartzen da.

Martxoaren 14ko aipatutako 463/2020 Errege Dekretuak 4. artikuluan ezartzen duenez, Gobernuak izanen da alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritzak, eta, zein bere ardura eremuan, agintaritzak eskudun delegatuak izanen dira, halaber, ministerio hauekiko titularrak: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak bere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere agintaritzak eskudunen zuzeneko aginduen esparruan. COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortu duen ohiz kanpoko egoeraren ondorioz, premiazko zenbait neurri berezi hartu behar izan dira. Horretarako, martxoaren 18ko 1/2020, martxoaren 25eko 2/2020, apirilaren 15eko 3/2020, apirilaren 29ko 4/2020 eta maiatzaren 20ko 5/2020 Foru Lege-dekretuen bidez, premiazko neurri batzuk onetsi ziren koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Nafarroako Parlamentuak 2020ko martxoaren 27an egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen lehenbiziko bi foru lege-dekretuak baliozkotzea eta foru lege proiektu gisa tramitatzea, premiazko prozeduraren bidez. Tramitazio horren ondorioz onetsi ziren, batetik, apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, eta, bestetik, apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Era berean, Nafarroako Parlamentuak 2020ko apirilaren 21ean, maiatzaren 7an eta ekainaren 4an egindako Osoko Bilkurek erabaki zuten baliozkotzea apirilaren 15eko 3/2020, apirilaren 29ko 4/2020 eta maiatzaren 20ko 5/2020 Foru Lege-dekretuak.

Ohiz kanpoko premia bereziko inguruabarrak ikusita, beharrezkoa da seigarren neurri sorta ezartzea, zeina foru lege-dekretu honetan jasotzen baita.

Gaixotasunaren abantzuari eusteko, mar-txoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak mugapen handiak ipintzen zizkion pertsonen zirkulazio askeari, eta beste hainbat ezohiko neurri ere ezartzen zituen behin-behinean.

Bidaiarien garraio publikoari dagokionez, Errege Dekretuaren 14.2 artikulua gaitu egiten zituen autonomia-erkidegoetako agintariak zerbitzuetan murrizketa-ehunekoak ezartzeko, kontuan izanik ezinbestekoa zela herritarrei lantokira joateko eta oinarrizko zerbitzuak izateko eskubidea bermatzea.

Halaber, ezartzen zuen bidaiarien garraio-zerbitzuetako operadoreak beharturik daudela ibilgailuak egunero-egunero garbitzera, eta beharrezko neurriak hartu behar dituztela erabiltzaileen artean ahalik eta tarterik handiena gorde dadin.

Manu horrekin bat, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Garraio Zuzendaritza Nagusiak hainbat ebazpen onetsi zituen, zeinetan ehunekoak eta irizpideak zehazten baitziren bidaiarien hiriarteko errepide-garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren eskaintza murrizteko, osasun-egoeraren bilakaera eta zerbitzuen eskaria kontuan hartuz, baita ibilgailuen okupazioan ezarritako murrizketak aintzakotzat hartuz ere. Horretaz gainera, alarma-egoeran pertsonen zirkulazioari ezarritako mugaketen ondorioz, eskariaren gainbehera handiarekin eskaini dira errepide bidezko bidaiarien garraio publikoko zerbitzu erregular orokorrak – hain zuzen ere, %95 ingurukoa izan da beherakada hori–.

Egoera horretan, alarma-egoerak iraun bitartean zerbitzuak emateko baldintzek aldaketa esanguratsuak izan dituzte, zerbitzu horiek emateko aurretik ziren baldintzekin alderatuz, eta, horren ondorioz, areagotze ezohikoa gertatu da haien ustiapen-defizitean; horrek justifikatzen du konpentsazio ekonomikoetarako ezohiko araubide bat ezartzea errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren zerbitzuak esleitzeko kontratuetan. Neurri horiek foru lege-dekretu honen I. tituluan daude bildurik.

Bestalde, COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko hartutako neurriak direla eta, profesional autonomoek zailtasun bereziak dituzte lanerako; hori dela eta, babes ekonomikoa eskaintzeko hainbat neurri arbitratu dira, haien jardun profesionala bermatze aldera –kasu batzuetan,

zailtasunak zituzten profesional autonomoentzat, eta, ondorioz, errenta bermatua jasotzen ari zirenentzat ziren neurri horiek–; horren guztiaren ondorioz, gairitu egiten dituzte prestazio hau jasotzeko eskubidea sortzeko ezarritako diru-sarrerak.

Hori dela eta, haien lanbide-jarduna suspertzen jarraitzeko, egokitzen jotzen da behin-behinean prestazio hori etetea –hartara, berriro ere jasotzen ahalko dute, errenta bermatua eskatzeko administrazio-izapideak atzera egin beharrik gabe–; beste horrenbeste gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak 24.3 artikuluan aurreikusitako laneratzeko prestazioaren aldi baterako etenarekin, baita gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideen garapenari buruzko apirilaren 25eko 26/2018 Foru Dekretuaren 21.4 artikuluan aurreikusitako prestazioaren etenarekin ere. Aldi baterako etete hori foru lege-dekretu honen II. tituluan dago arauturik.

Konfinamendu-neurriak, aldi berean, aldaketa nabarmena sustatzen ari dira karbono-dioxidoaren emisiorik gabeko energia sortzen duten iturrietarantz, hala nola energia eolikoak, eguzki-energia fotovoltaikoa eta hidroelektrikoa. COVID-19a ekonomian eragiten ari den ondorioak arintzeko, energia-garapen jasangarria sustatzea da gakoa, eta, aldi berean, enpresa-ehuna eta enplegu-sorkuntza indartzea.

Nazioarteko Energia Agentziak aurreko hilean nabarmentzen zuenez, 2021ean esperotako susperraldiak ez du ekarriko krisiaren aurretik aurreikusitako maila, eta, ziurrenik, urtez urteko %13ko beherakada gertatuko da sarera konektaturiko ekoizpen elektriko energia berriztagarrietarako instalazio berrietan, COVID-19aren eraginak agertzen hasi baino lehen eginiko proiektioekin alderatuz.

Foru lege-dekretu honen III. tituluan bildutako neurriari esker, hein batean arindu nahi da COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz energia eolikoaren esparruan sorturiko krisialdi ekonomikoa, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin (S3) lerrokatutako proiektuak txertatu ahal izateko, zeinak lehentasun gisa planteatzen baitu Nafarroaren lidergoari eustea energia berriztagarrien alorrean, guztia ere energia-eraginkortasunaren aldeko apustua egin da, baita natura-baliabideak kudeatzearen eta balioestearen alde ere, lurraldea eraldatzeko ardatz gisa.

Baliabide eolikoak aprobeitzatzeko eskatzen du erabat aztertzea lurralde-baldintzatzaileak, eta

kokalekuen hautaketak bermatu behar du instalazioak bateragarriak izatea alor batzuetan eta besteetan identifikaturiko balioekin, eraginak minimizatzeko neurri egokiak aplikatzearen bitartez. Gaitasun agrologiko handia duten lurzoruen kasu konkretuan, beharrezkotzat jotzen da instalazioen diseinua aztertzeo aukerari heltzea energia eolikoak aprobetxatzeko, betiere frogaturik baldin bada bitarteko horren eskuragarritasuna eta proiektua nekazaritzarako gaitasun handiko lurzoru ahalik eta gutxien zigitatuz gauzatzen baldin bada, baita inguruko nekazaritzajardueraren bateragarritasuna bermatuz ere.

Hartutako neurria premiazkoa da Nafarroan energia eolikoarekin lotutako enpresa-ekimenak garatzeko, guztia ere Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu 2020-2023 planean bildutako printzipioekin eta helburuekin bat.

Era berean, egoera epidemiologikoak osasun publikoko neurriak hartzea behartu du, eta, ondorioz, aldatu egin da harreman sozialen, ekonomikoen eta produktiboen garapen normala. Bereziki, nabarmendu daiteke etenda geratu direla oinarritzako ez diren jarduera guztiak eta mugaturik beste asko eta asko; horrek ekarri du langabezi koiunturala nabarmen areagotzea, bai eta enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen jarduera murriztea ere.

Hori dela eta, hainbat neurri onetsi dira haren ondorioak arintzeko, zeinak orain tributuen alorrean osatuko baitira, foru lege-dekretu honetako IV. tituluan.

Hori horrela, COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziazko ezohiko neurri buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 40. artikulua aparteko erregulazio bat ezartzen zuen zuzenbide pribatuko pertsona juridikoen urteko kontuak formulatzeko, egiaztatzeo eta onesteko epeetan. Esandako erregulazio horrek sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkezteko obligazioari eragiten dio; izan ere, kontabilitate-emaizaren oinarriaren gainean zehazten baita zerga-oinarria zuzeneko zenbatespen-metodoan. Aipatutako ezohiko neurriek eragindako ondorioak arintzeko, zergaren aitorpenaren epea amaitu aurretik urteko kontuak onartu ezin izan dituzten zergadunei ahalmena ematen zaie aitorpena une horretan eskura dituzten urteko kontuekin aurkez dezaten, betiere arauak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz.

Ondoren, kontuak zuzenbidearen arabera onartzen direnean eta kontabilitate-emaizta behin betiko jakiten denean, desberdinak baldin badira onartutako urteko kontuen arabera egin beharreko

autolikidazioa eta ezarritako epearen barruan aurkeztutakoa, beste aitorpen bat aurkeztu beharko da, eta, horretarako, 2020ko azaroaren 30era arteko epea emanen da. Aitorpen berriaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa bada edo itzuli beharreko kopurua txikiagoa bada, aitorpen berria aurkezten den unean eginen da dagokion zenbatekoaren ordainketa, berandutze-interesik eta garaiz kanpo aurkezteagatiko errekarurik aplikatu gabe. Aitorpen berriaren ondorioz itzuli beharreko kopurua handiagoa bada edo ordaindu beharreko kopurua txikiagoa delako itzulketa badagokio, aitorpen berria aurkezten den unetik hasiko da zenbatzen interesik gabe itzulketak ofizioz egiteko sei hilabeteko epea.

Aurrekoaren ildotik, urteko kontuak formulatzeko eta onartzeko epeak luzatu dituzten fundazioen kasuan, 2020ko azaroaren 30era arte luzatuko da Nafarroako Foru Ogasunari Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak aurreikusitarekin bat aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko epea.

Bestalde, zerga-prozedurak eten izanak Nafarroako Foru Ogasunaren zordunen zerrenda argitaratzeari ere eragin dio. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105 bis artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, urteko lehendabiziko seihilekoaren barruan argitaratu behar da aipatutako zerrenda. Argitalpen hori egin aurretik, zerrendan sartu dela jakinarazi behar zaio zergadunari, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Legez ezarritako izapideak bete ahal izateko, 2020ko irailaren 30era arte luzatzen da zordunen zerrenda argitaratzeko epea.

COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziazko ezohiko neurri osagarri buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuak, autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen finantza-karga aldi baterako arintzeko, ezartzen zuen alarma-egoerak iraun bitartean eten eginen zela elektrizitatearen, gas naturalaren eta petroliotik eratorritako zenbait produkturen fakturen ordainketa. Era berean, elektrizitatea eta gasa merkaturatzen duten enpresak edo, hala dagokionean, gas manufakturatuen eta petroliogas likidotu kanalizatuaren banatzaileak salbuesita geratu ziren bidesariak ordaindu behar izatetik eta kontsumo horiek kargatzen dituzten zeharkako zergen likidaziotik ordainketen etendak iraun bitartean, bidegabeko diruzaintzarako beren gain har ez ditzaten. Foru lege-dekretu honen bidez, neurri hori biltzen da Nafarroako foru-araudiaren peko merkatura-

tzaileek ere ez dezaten zeharkako zergarik ordaindu behar izan etenaldiak irauten duen denboran.

Osasun-arloko profesionalak pandemia garaian egiten ari diren lan eta ahalegin pertsonal apartekoa aitortzeko, UNESPA aseguru-patronalak jakinarazi zuen sektoreko 109 enpresak konpromisoa hartu zutela funts solidario bat eratzeko, heriotzagatiko edo ospitaleratzeagatik kalte-ordainak biltzen dituen doako aseguru bat finantzatze aldera, osasun-arloko langileentzat. Fiskalitateari dagokionez, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan salbuetsita geratzen dira COVID-19aren ondoriozko heriotza- eta gaixotasun-gertakariengatik prestazioak, betiere osasun-langileen aldeko doako aseguru kolektibo horren ondorioz sortuak badira eta aseguru-entitateek Aseguruen eta Berraseguratzailen Espainiako Batasunaren bidez sinatu badituzte.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, familia-kontziliazioa errazteko, subjektu pasiboak Gizarte Segurantzari kotizazioengatik 2020an ordaindutako zenbatekoen 100eko 100eko kenkaria ezartzen da kuota osoan, kontratu horiek familia-etxean ondorengoan, aurreko ahaideen, beste ahaide batzuen eta desgaitasuna duten pertsonen zaintzan lan egiten duten pertsonekin formalizatu badira. Kenkari hori 2020an aplikatuko da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.9.c) artikuluan araututako kenkariaren orde.

Koronabirusak eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak agerian utzi du zer-nolako garrantzia duen enpresen digitalizazioak erronka berriei aurre egiteko. Enpresa txikien eraldaketa digitala bultzatzeko, 2020an egindako gastu eta inbertsioen 100eko 30eko kenkari bat ezartzen da sozietateen gaineko zergaren (edo, hala badagokio, PFEZren) kuota osoan, baldin eta inbertsio horiek baliatu badira merkataritza elektronikoa ezartzeko, administrazio-prozesuak digitalizatzeko (fakturazioa, salmentak, kontabilitatea), hodeirako sarbideak eskura ipintzeko, web-orriak egiteko eta internet bidezko ordainketa-sistemak ahalbidetuko dituen softwarea erosteko. Enpresa txikiek eta enpresa- eta lanbide-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek aplikatzen ahalko dute kenkari hori.

Bestalde, sozietateen gaineko zergaren alorrean jarraituz, azken xedapenetako lehendabizikoan ezartzen da 2020ko zergalditik aurrera aplikatuko dela sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 64.a) artikulua

an araututako energia berriztagarrien instalazioetako inbertsioengatik kenkaria, kuota likidoaren %25eko mugari lotu gabe.

Azken xedapenetako bigarrean, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez eta Estatuko araudian ezarritakoaren ildotik, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kuota mailakatutik salbuetsizat aitortzen dira legezko luzamenduak eta konbentzionalak formalizatzeko eskriturak, betiere martxoaren 17ko 8/2020, martxoaren 31ko 11/2020 eta maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-dekretuetan arautuak badira.

Azkenik, azken xedapenetako hirugarrenean, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra aldatzen da, tributu-administrazioak zergapekoekin egin beharreko jarduketak bideokonferentzien bidez egin ahal izateko aukera barnean hartzeko.

Kirolaren arloan, COVID-19ak eragindako alarma-egoerak eta osasun-krisiak eragin nabarmena izan dute kirol-erakundeen jardueran, kirol-lanbideetan aritzen diren edo jardun nahi duten pertsonen jardueran, prestakuntza ematen duten zentro eta enpresetan, bai eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoen funtzionamenduan ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean jasotako epeak luzatzea, epe horiek bukatu baino lehen bete behar baitira lege-testu horretan jasotako hainbat betebeharrak. Foru lege-dekretu honen azken xedapenetako laugarrenean jorratzen da gai hori.

Gizarte-zerbitzuei dagokienez, Nafarroako Gobernuak hainbat zerbitzu sustatzearen aldeko apustua egiten du, mendetasuna duten pertsonen familia-ingurunean jarrai dezaten ahalik eta denbora luzeenean. Helburu hori lortzeko abiarazitako neurrien artean ageri dira, besteak beste, honako hauek: 2018an eguneko zentroetarako itundutako plazen kopurua ugartzea, tarifak murriztea eta zerbitzu horretako erabiltzaileentzako ordutegiak murriztea, 2019an zaintzaile profesionalak kontratatuzko laguntza ekonomikoa berreskuratzea, eta azken esparru-akordioan eguneko arretarako plazak eta autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programak hitzartzea.

Baina, koronabirusetik (COVID-19) babesteko osasun publikoko irizpideak lehenesten diren uneotan, are beharrezkoagoa da pertsonen etxean egoteko aukera emanen dieten zerbitzuak bultzatzea, beharrezko zaintzak ziurtatuz. Nahiz eta hor-

rek eskaintzen ari diren zerbitzuak berregitura- ztera behartzen duen, aukera ona da pertsonak beren ingurunean geratzea ahalbidetuko duten baliabideak bultzatzen jarraitzeko eta, gainera, zainketen esparruko lan-merkatua bultzatzeko. Foru lege-dekretu honen azken xedapenetatik bosgarrenean, mendekotasuna duten pertsonen- tzako zaintzaile profesionalak kontratatzekeo lagun- tza ekonomikoaren gehikuntza jasotzen da; horren ondorioz, gutxitu eginen da pertsona horiek zain- tzak emateko egin behar duten ahalegina, eta, aldi berean, kontratazio arautua suspertu dezake, Gizarte Segurantzaren sistemara pertsona gehia- go erakarriz.

Bestalde, lanbide-jarduna aldizka gauzatzen duten kultura-sektoreko langile autonomoak koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premia- zko neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 2. artikuluan araututako laguntzen aplikazio-esparruan biltzeko, azken xedapenetako seigarrenean aldatu egiten da esandako artikulua horretako 2. apartatua, eta ezartzen da zer eskakizun bete behar dituzten profesional horiek artikulua hartan aurreikusitako laguntza zuzenak eskuratzeko eskubidea izan dezaten.

Azkenik, azken xedapenetako zazpigarrenak hainbat aldaketa egiten dizkio Nafarroako Errepi- deei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Leg- eari.

Egun indarrean dagoen Nafarroako Errepideen Foru Legea 2007ko martxoaren 23an onetsia da, eta Nafarroako errepideak planifikatzeko, eraiki- tzeko eta ustiatzeko arauak ezartzen ditu, garai hartako inguruabar sozialak, legezkoak eta ekonomikoak kontuan harturik. Foru Komunitateak eskusiboa izan du eskumen hori tradizionalki.

Igarotako denborak eta errekerimendu sozial, tekniko eta industrial berriak agertu izanak bistar- tzen dutenez, arauak ez ditu behar bezala konpontzen bide-jabari publikoaren ustiapenari buruzko hainbat erroka, zeinak berehala zuzen- du beharrekoak baitira, bateragarriak izan daitez- keen hainbat helburu publiko eta sozial beteko badira.

Egungo pandemia hau, ziurrenik, hainbat ten- sioen eragile izan da, bideen ustiapenari eta pre- mia berrietara egokitzekeo beharrari dagokienez.

Ez dezagun ahaztu indarrean dagoen araua oso murriztailea dela bideen jabari publikoaren babes-eremuetan baimendu daitezkeen erabilerei dagokienez, eta, gainera, alde batera uzten duela ondarearen zeinahi partekatze.

Horretarako, azken xedapenetako zazpigar- renak Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen zenbait artikulua alda- tzen ditu.

Bide-jabari publikoaren gainean bestelako azpiegiturak eta interes orokorreko zerbitzu pub- likoa emanen duten sareak ezartzekeo dagokionez, nabarmendu behar da Nafarroako Gobernuaren Sare Korporatiboak Europako Agenda Digitala 2020 betetzekeo duela xede; haren arabera, popu- lazioaren %85ek 100 Mbps baino konektagarritasun-estaldura handiagoa edukiko du, eta %100ek izanen du gutxienez 30 Mbps-ekoa. Helburu horiekin, Nafarroako Banda Zabalaren 2021eko Plan Zuzentzaileak ardatz estrategiko bat biltzen du, lurraldea lotzeko eta Nafarroako Foru Komuni- tatekeo herritarren eten digitala murriztekeo.

Abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareen hedapen-kostua murriztekeo neurriei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kon- tseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/61/EB Zuzentarauak (2016ko uztailaren 1ean jarri zen indarrean) 3. artikuluan ezartzen duenez, estatu kideek bermatuko dute sare-operadoreek beren azpiegitura fisikoan sartzeko arrazoizko eskaera guztiei erantzuten dietela, abiadura handiko komu- nikazio elektronikoen sareetako elementuak heda- tzeko. Abiadura handiko komunikazio elektroni- koen sareen hedapenaren kostua murriztekeo neurriei buruzko irailaren 9ko 330/2016 Errege Dekretuak ekarri zuen zuzentarau hori gure orde- namendu juridikora.

Nafarroako Gobernuaren zuntz optikoaren sare korporatiboa Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC) sozietate publikoari atxikitako azpiegitura bat da. Ezinbesteko sarea da hura administrazioak oinarritzeko zerbitzu publikoak eman ahal izan ditzan, hala nola hezkuntza eta osasuna.

Uneotan, COVID-19ak eragindako osasun-lar- rialdiko egoeraren aurrean, bereziki premiazkoa da aipatutako telekomunikazio-azpiegituren insta- lazio-planak bizkortzea, eta bide-azpiegiturak euskarri egokia dira instalazio horiek ahalik eta bizkorren gauzatzeko. Bereziki premiazkoa bihurtu da orain landa-eremuetan konektibitatea areago- tzeko beharra, konfinamendu-neurriek Internet modu intentsiboan erabiltzeko beharra ezarri baitute, dela osasun-premiak asetzeko (orain ezinbestekoak diren arreta-, kontrol- eta preben- tzio-neurrietarako), dela telelana edo urruneko irakaskuntza bultzatzeko, dela beste hainbat beharretarako. Izan ere, beti helburu desiragarri izan diren horiek ahalik eta epe laburrenean erabat gauzatu beharrekoak bilakatu dira orain.

Hori dela eta, osasun-larrialdiko uneotan, behar-beharrezkotzat eta premia bizikotzat jotzen da dagozkion arau-aldaketak egitea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bide-jabari publikoaren barruan telekomunikazio-azpiegiturak instalatu ahal izateko, eta, hala, banda zabala hedatu ahal izateko gure lurralde osoan.

Hori betetzera bideratuak dira, zehazki, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 39, 39 bis, 40 eta 41 artikuluko kontsolidatuak, zeinen bidez gaitzen baita interes orokorreko zerbitzu-sareen instalazio bidezkoa inguruabar haztatuetan. Araubidea osatzeko, 42 bis artikulua gaineratzen da, afekzioaren azkentzea berariaz arautzeko, bai eta 50. artikulua ere. Azken artikulua horretan, krisialdi ekonomikoetan asko eskaturiko berme-figura bat jasotzen da –egun COVID-19ak sorturikoa, kasu–; hau da, berme globala, baimen ugari sustatzen dituzten azpiegitura-sare handien titularren kasuan baliagarria.

Era berean, lehendik diren azpiegiturek sor ditzaizketen gatazka-egoerak arautzen dira, bideen jabari publikoaren ukigabetasun-baldintza egokietan arautu ere.

Arau-testuak beste bi egoera aurreikusten ditu, krisi ekonomikoko garaietan berehala erantzun beharrekoak biak ere. Hala, proposatzen da jatorrizko 31. artikulua zorroztasuna arintzea; izan ere, artikulua horrek ezartzen du departamentuaren alde aurreko nahitaezko txostena prestatu eta eman behar dela, ohiko estandarrik gainditzen dituzten ibilgailuentzako zirkulazio-baimen osagarri bakoitza emateko; eta Nafarroan fabrikatutako elementuen barne-garraioa eta esportazioa erraztuko duten neurriak ezartzen dira –bereziki haize-erroten palak–, jakinik zirkulazio hori atzeratu egiten dela bidalketa guzti-guztien berri emateko izapidetu beharreko espediente kopurua dela medio.

Nafarroako bideen eraikuntza-ezaugarriak eta garraioa errazteko premia aztertu ondoren, ondorioztatzen da txosten horien nahitaezko-tasunetik salbuetsi daitezkeela garraio batzuk, bide motaren arabera –bide eraiki berriak eta gaitasun handikoak– edo egitekoa den garraioaren espezialitatearen arabera, ziur egonik horrek ez duela arriskuan jarriko errepidearen egonkortasuna, eta, horretaz gainera, erraztu egin dezakeela Nafarroako industrien susperraldi ekonomikoa, berehala eman daitezkeen babes-neurri guztien beharra baitute.

Bigarren gaia Nafarroako Ubidea eta haren hodi- eta ureztatze-sarea Nafarroako eremu berri-

etara laster iristeari buruzkoa da. Azpiegitura horretako elementu asko errepidearen inguruetan kokatuko dira, eta gaur egun indarrean dagoen arauan ez da aurreikusten horiek ezartzea.

Interes orokorreko azpiegitura gisa, 39. artikulua berria eta horrekin bat datozenak aplikatuko litzazkioke, eta, bereziki, 41.d) artikulua aldatua (zortasun-eremuko aspertsoreak) eta 42.1.b) artikulua (eraikuntza-lerroan ureztatzea kudeatzeko elementuak instalatzea).

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipaturiko neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko ekainaren hamazazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege-dekretu honen xedea da neurri bereziak hartzea koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko.

I. TITULUA

Ezohiko neurriak, erabilera orokorreko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren zerbitzuak esleitzeko kontratuen esparruan

2. artikulua. Ezohiko konpentsazio ekonomikoa, erabilera orokorreko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren zerbitzuak esleitzeko kontratuetan COVID-19aren ondorioak arintzeko.

1. Administrazioak COVID-19aren ondorioz sortutako egoerari aurre egiteko alarma-egoeraren indarraldian hartutako neurrien bidez emaniko konpentsazio ekonomikoa jasotzen ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren erabilera orokorreko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzu erregular orokorren zerbitzuak bederatzi plazatik gorako ibilgailuekin esleitzeko kontratuek.

2. Konpentsazio hori inguruabar hauen ondorioz ezartzen da: batetik, diru-sarrerak ezohiko murrizketa izan dutelako, eskaria murriztu egin baita herritarren mugikortasunari ezarritako mugen ondorioz; bigarrenik, ibilgailuen okupazioari ezarritako mugengatik, erabiltzaileak behar bezala bereizteko; eta, hirugarrenik, enpresa kontratistari kostuak areagotu izanagatik, ibilgailuak egunero desinfektatu beharraren ondorioz. Foru lege-dekretu honetan ezarritako irizpideen eta prozeduraren arabera zehaztuko da konpentsazioaren zenbatekoa.

3. Foru lege-dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie alarma-egoera deklaratu zen egunean indarrean ziren kontratuei eta, halaber, interes publikoko arrazoiak direla medio, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hala eskatuta kontratua amaituta izanik ere zerbitzua ematen jarraitzen zutenei.

3. artikulua. Konpentsazio ekonomikoaren kalkulua kontratu bakoitzerako.

1. Kontratu bakoitzerako, honela kalkulatu da alarma-egoeraren indarraldiari dagokion konpentsazio ekonomikoa: sortutako eta sortu gabeko kilometroen kostuak batuz, lortutako diru-sarrerak kenduz eta aldi horretan erabilitako ibilgailuen eguneroko aparteko garbiketen kostuak gaineratuz, betiere honako formula honekin bat:

Kompentsazio ekonomikoa = sortutako kilometroak x 1,546 euro + egin gabeko kilometroak x 0,304 euro + eskaerari eskainitako zerbitzuetatik egin gabeko kilometroak x 0,833 euro – diru-sarrerak + desinfekzioaren kostua.

Hauek dira kontuan izan beharreko kontzeptuak:

Eginiko kilometroak: eginiko kilometroak, enpresak aitortuak eta administrazioak egiaztatuak aztertutako aldirako.

Egin gabeko kilometroak: egin gabeko kilometroak, enpresak aitortuak eta administrazioak egiaztatuak aztertutako aldirako.

Garraioetako zuzendari nagusiaren martxoaren 30eko 25/2020 Ebazpenean jasotzen denaren arabera (zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularren zerbitzuetan), eta, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat, 0,833 euroan ordainduko da enpresak erabiltzaileen eskariari erantzuna emateko eskainitako zerbi-

tzuetarako produzitu gabe geratu den kilometro bakoitza.

Diru-sarrerak: kontratistak aztertutako aldirako aitortutako diru-sarrerak.

Desinfekzio-kostua: erabilitako ibilgailuak desinfektatzeko aitortutako kostuak, gehienez 20 euro ibilgailu eta egun bakoitzeko, eta gutxienez 10 euro ibilgailu eta egun bakoitzeko.

Desinfekzio-kostuak kalkulatzeko, kontzesio bakoitzari atxikita dauden ibilgailuen kopurua eta aldi bakoitzean eskainitako zerbitzu-maila hartuko dira kontuan.

2. Konpentsazioa kalkulatzeko, ezinbestekoa izanen da zerbitzuok Garraioetako zuzendari nagusiaren ebazpenen bidez emanak izatea (ebazpen haien bidez, neurriak hartzen dira errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularren zerbitzuetan, betiere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak badira zerbitzuok). Guztia ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

3. Ukitutako kontratu guztietarako ordaindu beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu kontzeptu horretarako ezarritako guztizko aurrekontua (2.024.422 euro), proportzionalki murriztuko da kontratu bakoitzari dagokion konpentsazioaren zenbatekoa.

4. Foru lege-dekretu honen arabera kalkulatu-tako zenbateko ekonomikoa konpentsaziotzat hartuko da kontratu bakoitzerako –alarma-egoerak iraun bitartean COVID-19aren osasun-krisiaren eragina arintzeko administrazioak hartutako neurriei esker emana–, eta ezin izanen da bestelako kalte-ordainik jaso edo egoera horiek ukitutakokontratuak ekonomikoki berroratu.

Nolanahi ere, alarma-egoeraren indarraldia ez da kontuan hartuko 2020ko ustiapen-defizita zehazteko, Garraioetako zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 365/2009 Ebazpena aplikatuz, zeinaren bidez aldatu egiten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko erabilera orokorreko bidaiarien garraio publiko erregular iraunkorreko zerbitzuen emakidak, ustiapen defizitariora duten zerbitzuen enpresa emakidadunentzako konpentsazio ekonomikoko araubide berezi bat ezartzeko.

4. artikulua. Konpentsazio ekonomikoa izapidetzeko prozedura.

1. Enpresa kontratistak eskatuta hasiko da foru lege-dekretu honen arabera kontratuak ekonomikoki konpentsatzeko prozedura. Eskaera hori hilabeteko epean aurkeztu beharko da, foru lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraioen Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta.

Enpresek eskaera formalizatu beharko dute, eduki honekin:

a) Izena edo sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzailearen ordezkari gisa jarduten duen pertsonaren datuak, halakorik denean, eta kontratuaren kodea eta izena.

b) Justifikazio-memoria, alarma-egoeraren indarraldiari buruzko datu hauekin: egunean egindako kilometroak, astero-astero egin gabeko kilometroak, eguneroko eskariari eskainitako zerbitzuetatik egin gabeko kilometroak, egunero zerbitzua eman duten ibilgailuak, eguneroko tarifekin izandako diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak; guztia ere enpresa bakoitzari bidaliko zaion formatuaren arabera.

c) Erabilitako ibilgailuak desinfektatzeko izandako gastuei buruzko justifikazio-memoria, eta, hala badagokio, dagozkien fakturak.

d) 2020ko martxoaren 14an kontratuari atxikitako flotaren zerrenda, matrikularen bidez identifikatutako ibilgailu kopurua zehaztuta.

e) Eskaeran ageri diren datu guztiak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena, enpresa-ordezkariek sinaturik.

2. Prozedura gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsizat joko da eskabidea.

II. TITULUA

Neurri berezia gizarte-zerbitzuen arloan

5. artikulua. Errenta Bermatuaren ordainketa etetea kasu jakin batzuetan.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiari edo haren ondorioz hartutako neurriei aurre egiteko ezarritako profesional autonomoentzako berarizko laguntza ekonomikoek indarrean jarraitzen duten bitartean, eten egingen zaie Errenta Bermatuaren ordainketa dirulaguntza horietakoren bat aitortu zaien unitate hartzaileei, baldin eta gainditu egiten badituzte kide kopuruagatik dagozkien Errenta Bermatuaren zenbatekoak.

III. TITULUA

Neurri berezia

lurralde-antolamenduaren arloan

6. artikulua. Salbuespenezko baimena, energia eolikoa sortzeko sistemak eta husteko linea elektrikoak instalatzeko.

“Babes” kategorian eta “natura aldetik ustiatzeko balioa duen lurzorua: nekazaritza-gaitasun handiko lurzorua” azpikategorian indarrean dagoen araudiaren barruan dagoen lurzoru urbanizaezinean, salbuespen gisa, energia eolikoa sortzeko sistemak eta husteko linea elektrikoak jartzeko baimena ematen ahalko da, baldin eta zigilatu beharreko lurzorua beharrezko gutxienekoa bada eta une oro bermatuta geratzen bada inguruko lurren bateragarritasuna nekazaritza-aprobetxamenduarekin.

IV. TITULUA

Neurri bereziak tributuen esparruan.

7. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren aurkezpena, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera abiatutako zergaldiei dagokiena.

1. COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziazko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, dagokion organoak ez baditu onartzen 2019ko zergaldiko urteko kontuak sozietateen gaineko zergaren abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 75.1 artikulua ezarritako aurkezpen-epearen barruan, eskura diren urteko kontuekin egingen da autolikidazioa.

Horri dagokionez, hauek joko dira eskura diren urteko kontutzat:

a) Sozietate anonimo kotizatuentzat, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 41.1.a) artikulua aipatzen dituen urteko kontu auditatuak.

b) Gainerako zergadunentzat, urteko kontu auditatuak, edo, halakorik ezean, dagokion organoak formulatutako urteko kontuak, eta azken horiek izan ezean, berriz, Merkataritza Kodean edo arautzeko baliatzen dituzten arauetan aurikusitakoaren arabera eramandako kontabilitate eskuragarria.

2. Desberdinak baldin badira dagokion organoak onartzen dituen urteko kontuen arabera sortu behar den zergaren autolikidazioa eta aurkeko paragrafoan xedatutakoaren arabera aurkeztutakoa, zergadunek beste autolikidazio bat aurkeztu beharko dute 2020ko azaroaren 30a baino lehen, onetsitako urteko kontuen arabera.

Autolikidazio berriaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa izanez gero edo itzuli beharreko kopurua txikiagoa bada, aurkezten den unean ordainduko da dagokion zenbatekoa, eta ez dira aplikatuko ez berandutze-interesak, ez Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 52.3 artikuluan araututako garaiz kanpoko aurkezpenagatiko errekarua.

Autolikidazio berriak itzuli beharreko zenbateko handiagoa edo ordaindu beharreko zenbateko txikiagoa ematen badu, aurkezten den egunetik aurrera hasiko da kontatzen Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 88. artikuluan eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 77. artikuluan aipatzen den epea.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera aurkeztutako autolikidazio berriari ez zaizkio aplikatuko Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 96.4 artikuluan aipatzen diren aukeren zuzenketari dagozkion mugak.

Administrazioak egiaztatzen ahalko ditu autolikidazio berri horiek, eta, hala badagokio, dagokion likidazioa eginen du.

8. artikulua. Fundazioen kontuak aurkezteko epeak.

Fundazioen eta babesletza-jardueren tributuaraubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean araututako zerga-araubidearen pean dauden fundazioek, baldin eta epeak luzatzeko eskatu badute urteko kontuak formulatzeko eta onesteko –martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 40. artikuluan ezarritakoari jarraikiz–, 2020ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dizkiote Nafarroako Foru Ogasunari esandako Foru Legearen 11.2 eta 11.3 artikuluetan aipatzen diren dokumentuak.

9. artikulua. Zerga-betebeharren ez-betetze nabarmenak argitaratzeko epeak 2020an.

2020ko urriaren 1a baino lehen eginen da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105 bis artikulua aipaturiko argitalpena, 2019ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Ogasuneko zordunen zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzetik eratorria.

10. artikulua. Elektrizitate, gas natural eta petroliotik eratorritako produktuen fakturak etetea.

Elektrizitatearen eta gas naturalaren merkaturatzaileak eta gas manufakturatuen eta kanalizazio bidezko petrolio-gas likidotuen banatzaileak salbuetsita geratuko dira balio erantsiaren

gaineko zergaren, Elektrizitatearen zerga bereziaren –hala badagokio–, eta hidrokarburoen zerga bereziaren –hala badagokio, kasu horretan ere– likidaziotik, betiere COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziazko ezohiko neurri osagarriari buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 44. artikuluan xedatutakoaren arabera ordainketa eten zaien fakturei dagokienez, harik eta kontsumitzaileak osorik ordaintzen dituen arte edo alarma-egoera amaitu eta sei hilabete igarotzen diren arte.

11. artikulua. Doako aseguru kolektiboa osasun-langileentzat.

2020an, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergatik eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita egonen dira COVID-19aren ondoriozko heriotzagatiko eta gaixotasun-ger-takariengatiko prestazioak, betiere osasun-langileen aldeko doako aseguru kolektibo horren ondorioz sortuak badira eta aseguru-entitateek Aseguruen eta Berraseguratzailen Espainiako Batasunaren bidez sinatuak badira.

12. artikulua. Ondorengo ahaideak, aurrekoak, beste senide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota-kenkariak 2020an.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osotik kentzen ahalko da subjektu pasiboak Gizarte Segurantzako kotizazioengatik 2020an ordaindutako zenbatekoen 100eko 100, baldin eta kotizazio horiek ordaintzearen arrazoia pertsonen zaintzan familia-etxean lan egiten duten pertsonekin kontratua formalizatzea bada, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.9.c) artikuluan aipatzen den moduan.

2020an, ez da aplikatzekoa izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.9.c) artikuluan aurreikusten den kenkaria.

13. artikulua. Enpresen eraldaketa digitalerako kenkaria.

1. Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gainekoaren zergadunek –establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badute eta, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa txikitat hartzen badira– eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek –jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte eta

beren jardueraren etekin garbia zuzeneko zerbatespenean zehazten badute— 2020an enpresaren eraldaketa digitalerako eta merkataritza elektronikoa ezartzeko egindako gastu eta inbertsioen %30eko kenkaria egiten ahalko dute kuota osoan.

2. Hauek dira kenkarizat har daitezkeen gastu eta inbertsioak:

a) Softwarea erosi, harpidetu, eguneratu edo berritzea, salmentako, fakturazioko edo kontabilitateko administrazio-prozesuak digitalizatzeko; hodeiko zerbitzuak eskuratzeko; eta web-orriak sortzea, instalatzeko eta ezartzeko gastuak ere barnean harturik.

b) Softwarea erosi, harpidetu, eguneratu edo berritzea, merkaturatze eta salmenta elektronikoa eta Internet bidezko ordainketa-sistemak ahalbidetzeko, instalatzeko eta ezartzeko gastuak barnean hartuta.

3. Kenkariaren oinarria egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoak osatuko du, 5.000 euroko mugarekin. Muga hori inbertsioak hartzen dituen zergaldi guztiei (osotara) aplikatuko zaie, hala badagokio.

4. Artikulu honetan ezarritako kenkaria sozietateen gaineko zergari buruzko foru-araudian xedatutakoaren arabera aplikatuko da, eta ez zaio aplikatuko Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan araututako kuota likidoaren %25eko muga.

Azken xedapenetako lehena. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako, honako testu hau izanen du sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluen lehendabiziko paragrafoak:

“4. 58. eta 64.b) artikuluetan aurreikusitako kenkariak ezin izanen dute osotara gaintu kuota likidoaren %25, jarduera hasi arte 58. artikuluan araututakoa izan ezik, horrek kuota likido osoa hartu baitezake”.

Azken xedapenetako bigarrena. Aldatzea Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenetako testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Aldatu egiten da apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko doku-

mentatuen gaineko zergako xedapenen testu bategineko 35.l.B).26 artikuluen bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

“Era berean, salbuetsita geratuko dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-dokumentuen kuota mailakatutik COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziarako ezohiko neurri buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuan aurreikusitako luzamenduak formalizatzeko eskritura publikoak, bai eta COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko urgentziarako ezohiko neurri osagarri buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 24.2 artikuluan ezarritakoenak ere. Halaber, salbuetsita geratuko dira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz hartutako esparru-akordio sektorialen babesean emandako luzamendu konbentzionalenak ere, zeinak aurreikusita baitaude maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren aldaketa.

Bat. Aldatu egiten da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 84. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

“84. artikulua. Zerga-administrazioaren obligazioa eskubideen egikaritzea errazteko.

1. Zerga-administrazioak une oro emanen dizkio zergapekoari eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko erraztasunak.

2. Zergapekoen esku-hartzea eskatzen duten tributuan administrazioaren jarduketak zergadunentzat hain garestia ez den moduan gauzatu beharko dira, betiere horrek ez badio kalte egiten zerga-betebeharrak betetzeari.

3. Administrazioak eta zergapekoek zerga-prozeduretan egin beharreko jarduketak sistema digitalen bidez egiten ahalko dira. Sistema horiek aukera emanen dute irudia eta soinua bi norabideetan eta aldi berean komunikatzeko, bideokonferentziaren edo antzeko beste sistema baten bidez, bai eta zergapekoen eta organo jardulearen arteko elkarrekintza bisuala, entzuna eta ahozkoa ere, eta, hala badagokio, egindako jarduketan emaitza jasotzen duten dokumentuen transmisio eta harrera segurua bermatuko dute, betiere haien egiletza, autentikotasuna eta osotasuna bermatuz.

Zerga-administrazioak erabakitzen duenean erabiliko dira sistema horiek, eta zergapekoaren

adostasuna beharko da haien erabilerari eta haiek garatzeko egunari eta orduari dagokienez”.

Bi. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 133. artikularen 1. apartatuari e) letra gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“e) Aurreko letretan adierazitako lekuetan edo beste lekuren batean, jarduketa horiek 84.3 artikuluan aurreikusitako sistema digitalen bidez egiten direnean. Sistema horiek erabiltzeko, zergapekoaren adostasuna beharko da”.

Azken xedapenetako laugarrena. Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzea.

Bat. Aldatu egiten da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 laugarren xedapen iragankorraren 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Foru-lege hau indarrean jartzean, foru-lege honetan jasotako lehen laguntzako kualifikazio eskaera betetzen ez duten kirol arloko profesionalak 2021eko abenduaren 31 arte jarraitzen ahalko dute beren lanbide-jardueran”.

Bi. Aldatu egiten da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

“Nafarroako kirol-federazioek, hala behar denean, beren federazio-arauak foru lege honetara egokitu beharko dituzte 2022ko irailaren 1a baino lehen”.

Hiru. Aldatu egiten da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

“1. 2022ko irailaren 1a baino lehen kirol-lanbideren batean ari direnek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute egun hori baino lehen.

2. Kirol-lanbidean 2022ko irailaren 1etik aurrera hasi nahi dutenek lanbide horri ekin aurretik aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena”.

Lau. Aldatu egiten da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 azken xedapenetako laugarreneko 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Aurrekoa gorabehera, 2022ko irailaren 1etik aurrera eskatuko dira foru-lege honetan araututako lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen duten lanbide-kualifikazioak”.

Azken xedapenetako bosgarrena. Laguntza ekonomikoak areagotzea, mendekotasuna duten pertsonak etxean geratzeko zerbitzu bat kontratatzeke.

Aldatu egiten da Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren I. eranskineko B19 atalean aurreikusitako laguntza ekonomikoen zenbatekoa –mendekotasuna duten pertsonak etxean egoteko zerbitzu bat kontratatzeke–, eta honela geratzen da:

“B19. Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileak babesteko laguntza ekonomikoak.

a) Prestazio mota: bermatua.

b) Baliabide mota: Aldian-aldian jasotzeko laguntza ekonomikoak.

c) Baliabidearen helburua: prestazio ekonomikoa, eguneroko bizitzaren oinarritzko jarduerak norberaren etxean egin ahal izateko behar diren zainketak eskuratzeko.

d) Onuradunak: mendekotasun-egoeran daudenak.

e) Eskuratzeko baldintzak:

– Mendekotasun-maila bat aitortua izatea.

– Eskaera egin aitzineko bi urtetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea, edo, Espainiako beste toki batetik etorri gero, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezartzen dituen irizpideak betetzea (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

– Banakako Arreta Programan esleitutako zerbitzua.

f) Zerbitzuaren intentsitatea:

– Mendekotasun handia dutenak:

Zerbitzu bat kontratatzeke laguntza ekonomikoa: pertsona bat edo zerbitzu enpresa bat kontratatzea, gutxienez ere 80 orduz hilean.

Gehienez: 943,20 euro hilean.

Gutxienez: 433,40 euro hilean.

Familia ingurunean zainketak egiteko laguntza ekonomikoa: ahaideek edo inguruko pertsonen emandako zainketak.

Zaintzaile nagusi baten izendapena behar du.

Gehienez: 542,85 euro hilean.

Gutxienez: 249,44 euro hilean.

– Mendekotasun larria dutenak:

Zerbitzu bat kontratatzeko laguntza ekonomikoa: pertsona bat edo zerbitzu enpresa bat kontratatzea, gutxienez ere 80 orduz hilean.

Gehienez: 746,40 euro hilean.

Gutxienez: 329,90 euro hilean.

Familia ingurunean zainketak egiteko laguntza ekonomikoa: ahaideek edo inguruko pertsonak emandako zainketak.

Zaintzaile nagusi baten izendapena behar du.

Gehienez: 407,21 euro hilean.

Gutxienez: 180,00 euro hilean.

– Mendekotasun arina dutenak:

Zerbitzu bat kontratatzeko laguntza ekonomikoa: pertsona bat edo zerbitzu enpresa bat kontratatzea, gutxienez ere 60 orduz hilean.

Gehienez: 374,40 euro hilean.

Gutxienez: 172,80 euro hilean.

Familia ingurunean zainketak egiteko laguntza ekonomikoa: ahaideek edo inguruko pertsonak emandako zainketak.

Zaintzaile nagusi baten izendapena behar du.

Gehienez: 180,00 euro hilean.

Gutxienez: 60,00 euro hilean.

Mendekotasuna duen pertsonaren familia-unitatearen errentaren arabera ezartzen dira laguntza horiek.

g) Onartzen ote den erabakitzeke epea: bost hilabete.

h) Jarduketa-esparrua: Nafarroako Foru Komunitatea”.

Azken xedapenetatik seigarrena. Aldatzea apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak onetsi ziren koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Aldatu egiten da koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriei buruzko apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 2. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Langile autonomo batek heldu ez dionean martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 17. artikuluan zehaztutako jardunari uzteagatiko prestazio bereziari, eskubidea izanen du 700 euroko laguntza zuzena jasotzeko, baldin eta, aur-

reko 1. apartatuko a), b), c) eta d) letretan ezarritakoaz gain, baldintza hauek ere betetzen baditu:

a) Autonomo moduan altan segitzea Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean edo aurreikuspen sozialeko mutualitate batean eta Nafarroako Foru Komunitateko ekonomia-jardueren gaineko zergan, alarma egoera deklaratu zen egunetik hasita laguntza-eskaera egiten den egunera arte.

b) Jardunari utzi ez izana, baina laguntza eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioa gutxienez %30 murriztu bada aurreko seihileko naturaleko batez besteko fakturazioaren aldean.

Nekazaritza arloan beren kontura ari diren langileendako sistema berezian sartuta dauden nekazaritzako langile autonomoei dagokienez, sasoiko produkzioetan aritzen badira, prestazioa eskatu aurreko produkzio-kanpainaren hilabeteetan batez besteko fakturazioa gutxienez %30 murriztu denean aurreko urteko kanpainako hilabete berberetako fakturazioaren aldean.

Ekonomia-jardueren sailkapen nazionalako (EJSN) 2009: 5912, 5915, 5916, 5920 eta 9001etik 9004 bitarteko kodeak (bi horiek barne) dituzten jarduerak garatzen dituzten langile autonomoei dagokienez, prestazioa eskatu aurreko hilabete naturalean fakturazioa gutxienez %30 murriztu denean aurreko 12 hilabeteetako fakturazioaren aldean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren langile autonomoek eskubidea izanen dute apartatu honetan aratutako zuzeneko laguntza eskuratzeko, nahiz eta ez egon alta emanda Nafarroako Foru Komunitatean jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean, edo aurreikuspen sozialeko mutualitate batean martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen egunean, edo egun horren eta laguntza eskatzen den egunaren artean, baldin eta gutxienez 4 hilabetez edo 120 egunez alta emanda egon badira esandako zerga, araubide edo mutualitateetan alarma-egoera deklaratu aurreko hamabi hilabeteen barruan”.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea aldatzea.

Bat. Beste bi apartatu gaineratu zaizkio Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 31. artikuluari. Hona hemen testua:

“3. Errepideen arloan eskumena duen departamentuak ezartzen ahalko du zer bidetan ez den beharko, oro har, zirkulazio-baimen osagarriaren

izapideetarako aldez aurreko txostenik egoera jakin batzuetan, eta hark zehaztuko du, halaber, zer garraio-kasuri aplikatuko zaien salbuespen hori bera haien ezaugarriak aintzat harturik.

4. Departamentu horri dagokio, halaber, zehaztea zer baldintza tekniko bete behar diren eman daitezkeen gurutzatze, sarbide eta instalazio baimenetan, eta zer seinaleztapen ezarri behar diren zirkulazioa antolatzeke, halakorik beharko balitz”.

Bi. Nafarroako errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen egungo 39. artikulua 39.bis artikulua izanen da aurrerantzean.

Hiru. Beste 39. artikulua bat erantsi zaio Nafarroako errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeari. Hona testua:

“39. artikulua. Interes orokorreko zerbitzu publikoak.

1. Obrak, instalazioak edo beste erabilera batzuk egiten ahalko dira errepideen zelaigunean, eremu funtzionaletan, zerbitzukoetan eta babesekoetan, baldin eta interes orokorreko zerbitzu publiko bat emateak hala eskatzen bada, legedapen batean hala ezarrita dagoelako, edo, oro har, behar bezala justifikatzen bada ez dagoela teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den beste aukerarik, edo baimendutako sarbideak edo konexioak eraikitzeke edo berrezartzeko bada.

Hori horrela, baimentzen ahalko dira:

a) Goitiko edo behetiko igarobideak.

b) Salbuespen gisa, zerbitzu publikoen sare eta azpiegiturei dagozkien luzetarako lurpeko eroanbideak, baldin eta behar bezala justifikatzen bada ez dagoela teknikoki bideragarria den beste irtenbiderik luraren orografia-baldintza biziki nekezak edo hiri-barrukoak direla kontuan izanda, eta, ahal dela, galtzadatik kanpo geratzen direla – eta, posible denetan, bazterbideetatik kanpo ere bai–.

c) Administrazioek eta enpresa publikoek beren eskumenak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren elementu, obra, jarduketa eta instalazioak, ezin dutenean eduki beste kokalekurik beren izaeragatik edo funtzionaltasunagatik.

d) Behin-behineko instalazioak, epe jakin batekin, interes edo erabilera publikoko jardueri lotuta badaude.

e) Galtzadaren aldi baterako okupazioa, galtzadan bertan edo ondoko eremuetan baimendutako afekzioak gauzatzeko.

2. Artikulu honetan aipatzen diren erabilera-baimenen kasuan, bidearen titularrak ez du izanen erantzukizun ekonomikorik, ezta bestelako inolako erantzukizun zuzenik edo zeharkakorik ere, bide-jabari publikoan kokatzen den azpiegituran kalterik gertatuz gero, nola eta ez dagoen dolo edo zabarkeria larriarik. Hala, azpiegituraren titularrak edo ustiatzen duenak ordaindu beharko ditu konponketa-, mantentze-, aldatze-, ordezte- edo birjartze-gastuak, bidearen berezko erabileratik edo haren mantentze-, hobetze, zabaltze- edo ordezte-lanetatik eratorriak badira.

Obren eta instalazioen baimenek ez dute ekarriko inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, luizi edo irristatzeengatik edo errepidea mantentzeko edo hobetzeko beharrezko diren obra edo jarduketan ondorioz, haietan kalteak gertatuko balira edo aldaketak egin beharra balego.

3. Artikulu honetan aurreikusitako kasuan, jabari publikoa okupatzeak ez du esan nahi laga egin behar denik hura, eta jabari publikoa erabiltzeak ez du esan nahi administrazioaren demanio-ahalmenak laga behar direnik, ez eta administrazioak okupazio-eskubidearen titularrari edo hirugarrenei inolako erantzukizunik hartu behar denik ere.

4. Artikulu honetan ezarritako araubide juridikoa zerbitzu-azpiegiturei aplikatuko zaie, edozein izanik ere haiek instalatzeko araubidea”.

Lau. Aldatu egiten da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 40. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Inola ere ez da baimenik emanen errepidearen osotasunerako, bide segurtasunerako edo ustiatze egokirako kaltegarriak izan daitezkeen lanak edo instalazioak egiteko.

Errepidearen lur-berdinketan eta haren elementu funtzionaletan baimendu daitezkeen erabilerez gainera, ondoko jabari publikoko eremuan beste afekzio batzuk baimentzen ahalko dira, ez badiete egiten kalterik errepidearen osotasunari, bide-segurtasunari edo jabari publikoaren ustiapen egokiari. Adibidez, erabilera hauek, besteak beste:

a) Zerbitzu publikoen sare eta azpiegiturei dagozkien luzetarako lurpeko eroanbideak edo haiekiko loturak.

b) Salbuespen gisa, zerbitzu publikoen aireko sare eta azpiegituren euskarriak, baldin eta luraren baldintza orografikoak direla-eta teknikoki bideraezina bada gehiago urruntzea, errepide arruntetan eta elementu funtzionaletan, betiere

hiri-tarteetatik kanpo eta ez badira goi-tentsioko sare elektrikoaren euskarriak”.

Bost. Aldatu egiten da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 41. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Errepideen zortasun-eremuan, galtzadatik hurbilen daudenetan baimendu daitezkeen erabilerez gain, honako hauek ere baimentzen ahalko dira:

a) Luzetara doazen lurrazpiko hodiak, zerbitzuen sare eta azpiegiturenak, gehien bat eremuaren kanpoko mugatik gertuen dagoen toki erabilgarrian.

b) Itxiturak, foru-lege honetan aurreikusitako moduan, betiere ikusgarritasun eta segurtasun baldintzak murrizten ez badituzte.

c) Lur-mugimenduak eta zelaitze-lanak.

d) Bideak, aparkalekuak, irlatxoak edo lorategiak.

Horretaz gainera, baimentzen ahalko dira errepidearen osotasunari, bide-segurtasunari edo jabari publikoaren ustiapen egokiari kalterik egiten ez dioten erabilerak ere. Adibidez:

a) Nekazaritza-kultiboak.

b) Zuhaitzak botatzea.

c) Zuhaitzak metatzea.

d) Aspertsoreak instalatzea”.

Sei. Aldatu egiten da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 42. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

“1. Errepidearen galtzada mugatzen duen kanpoko lerroaren eta errepide-eraikinen lerroa bitarteko tartean, debekaturik daude eraikin berri oro, bai eta zerbitzuko aireko lineak, telekomunikazio zutoin edo dorreak paratzea ere, gurutzatzeak salbu.

Galtzadatik hurbilen daudenetan baimendu daitezkeen erabilerez gainera, baimentzen ahalko dira errepidearen osotasunari, bide-segurtasunari edo jabari publikoaren ustiapen egokiari kalterik egiten ez dioten erabilerak ere. Adibidez:

a) Zuhaitzak landatzea eta botatzea.

b) Ureztatzea kudeatzeko elementuak”.

Zazpi. Nafarroako errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeari 42 bis artikulua gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“42 bis artikulua. Erabilera edo afekzioa azkentzea.

Baimendutako afekzioaren edo erabileraren titularrak errepideen arloan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko dio jarduera aldatu, ezabatu, iraungi edo bertan behera utzi duela.

Departamentuak erabakiko du zer ondorio izanen dituen afekzioa bertan behera uzteak edo aldatzeak, eta dagozkion itzulketa- eta konponketa-neurriak ezarriko ditu.

Ildo beretik joko da jarduera edo erabilera ezabatzea behar bezala jakinarazi ez denean, eta errekerimendua eginen zaio eginbeharra duenari; Administrazioak modu subsidiarioan jokatu du eginbeharra duenak jaramonik eginen ez balu, eta premiamendu bidez ere ordainaraziko da”.

Zortzi. 5, 6 eta 7. apartatuak eransten zaizkio Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 50 artikuluari. Hona hemen testua:

“5. Interesdunek errepide-gaietan eskumena duen departamentuari proposatzen ahalko diote bide-jabari publikoan egindako jarduketengatik aurkeztu beharreko bermeak berme globalaren modalitatean eratzzea, sustatzen dituen jarduketa guztiak gauzatzetik erator daitezkeen erantzukizunak finkatzeko, espedienteko zehaztapen berezirik gabe. Bermeok izan litezke eskudirutan, abal baten bidez –erregelamenduz ezarritako moduan eta baldintzetan emanda–, edo kauzio-aseguruaren kontratu baten bidez –erregelamenduz ezarritako moduan eta baldintzetan eta erakunde aseguratzaile baimendu batekin eginda, eta kontratuaren ziurtagiria aurkeztuz–.

Berme orokorraren zenbatekoa finkatzeko, azken hiru ekitaldietan bide-jabari publikoan egikaritutako obra-bolumena hartuko da kontuan, interesdunari entzunaldia emanda, eta interesdunak atzera egin ahalko du, ez badago ados.

Administrazioak bermearen zenbatekoa doitzeko eskatzen ahalko du indarraldiko urte bakoitzaren amaieran, baldin eta ekitaldi horretan gauzatutako obra-bolumena %30 baino handiagoa bada gutxienez eratzeko kontuan hartutako bolumenaren aldean.

Zenbatekoa eguneratzen ez bada, Administrazioak bermea azkentzeko agintzen ahalko du, baina horrek ez du eragotziko bermearen eraginkortasuna, gauzatutako azken obraren berme-epea amaitzen ez den bitartean.

Berme orokorra Ogasunaren arloko eskumena duen departamentuan gordailutu beharko da.

6. Berme orokorra izanen da, indarrean den bitartean, interesdunak bideetako jabari publikoan sustatutako edozein jarduketaren ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzulea, eta horrek ez du eragotziko administrazioaren aldeko kalte-galeren ordaina ematea, halakorik gertatuz gero.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen kalte-ordainak gauzatzen badira, esleipendunak bermea birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, kontratua gauzatzen denetik hamabost eguneko epean; hala egin ezean, arau-hauste oso astuntzat joko da, Foru Lege honen 73.3.a) artikuluan tipifikatuta bezala.

7. Emandako azken baimenaren adostasun-aktatik urtebetera azkenduko da berme orokorra, interesdunak hala eskatuta”.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen eremuan, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako hamargarrena. Indarra hartzea eta indarraldia.

1. Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarrean egonen da Nafarroako Gobernuak ezartzen duen bitartean badirauela hura onestea ekarri duen egoera bereziak.

2. Halaber, foru lege-dekretu honetan onestitako neurrien artean iraunaldi zehatza dutenek hura beteko dute.

3. Azken xedapenetako zazpigarrenean xedatutakoak indarrean jarraituko du harik eta ondoko arau batek indarrrik gabe utzi arte.

Iruñean, 2020ko ekainaren 17an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía